

1



AVRERA

# KARMEL

1968 - 1

Erria eskolatzeko liburuxkak  
(Pliegos de cultura popular)

Artezkari: Aita Onaindia  
Zuzenbide: Amorebieta - Larrea  
(Bizkaia)

## GAI AK :

1. Mundu barri bat, 1
2. Gure lurraldea, 5
3. Zuzenak, nortzuk dira?, 9
4. Diño, 11
5. Gure sukaldea, 15
6. Aita Santuaren otoitza, 19
7. Europa'n zer jaten dan, 20
8. Lana, 22
9. Nazaret langilleen ispillu, 25
10. Lore jokuak, 27
11. Langilleak Europa'n, 28
12. Lana ta otoitza, 31
13. Gosea munduan, 35
14. Jabetasuna, 40
15. Erri-ondasunak zertarako?, 43
16. Kontratuen zuzentasuna errien artean, 45
17. Maitasuna, gizarte-auziaren ardatza, 48.
18. Erri atzeratuak, 52.
19. Eleiza gaurko mendean, 54.
20. Baserría eta uria, 58.
21. Baserriari eutsi ala kalera jetxi?, 60.
22. Eskolatzea, 63.
23. Gu eta kanpotarrak, 65.
24. Baserría ez daigun zatitu ez banandu, 67.

Emen KARMEL barrío be. Jantzi barriz datorkizu, izillaldi luze samarraren ostean. Ez, gero, aldizkari lez, liburu txiki antzera baiño. Liburuak gai bat izan oi dau, ta gai nagusi orren biran beste txikiago batzuk pillotzen dira. Guk be orrela egingo dogu. Lenengo cie onetan «Populorum progressio» deritzon enziklika inguruan zerbait egin doguneez.

Urtean lau liburuxka izango dira, irurogeita lau zortzi bat orrialdekoa. Bakotzak gai bat erabili arren, beste asko be sartuko ditugu, irakurgai utsegingarria izan dedin. Erderazko Selecciones, Meridiano, Fetes et Saisons eta antzekoak dagien modura edo.

Euskeraz, ainbat aldizkari doguz. Gure txalo beroak guztiai. Ez dautsegu eurak kalterik egin gura; danok langille ario berean; arek andik, onek emendik. Euskeraren bitartez geure erria eskolatu: ona gure elburu bakar eta andia.

Munduan gaur asko idazten da; eder ta jakingarritan, ez giltzi. Euskaldunak be, ortik, pixkat beintzat, jakin bear dau, edozein gaitan jakin be. Eder ta jakite ori, apurka, oilluari ura lez, emongo dautsagu liburu oneitan. Alan be, geure kutsuaz, geure arima ta nortasunaz janteita. Europa zar onek dagian aurrerakada onian, gure gogo zarrak be bai-dau bere zerbait itzi bearra.

Irakurle: emen dozu nun zerbait ikasia. Euskaldun erriarentzat egiñak izango dira liburuxkok. Kulturak, gaur, gora andia dau. Zuk be irakurri ta ikasi egizu. Ez esan: «Ez dakit euskeraz irakurten». Gogo onez eragopen guztiak aspirtzen. Aldatz-gorea, lenengotan, neketsu egin oi yaku; gero, erreze.

Ogiz, jolasez eta lanez bakarrik ez gara bizi. Gorago jo bear dau gizonak. Munduko errialderik geienak aurrera doaz. Eta kulturari eskerrak, doaz aurrera. Ez gaitazan gu bazter geratu. Aurrera beti, kulturaz!

Idazle: emen dozu zuk be nun idatzi. Betoa zure lanak, gaur, azal ta mamin ederto egiñak beti. Ez lizegiak be: lau kuartilla geienik, tarte bika idatzita.

Urte barruko lau aleen ordain-saria, 75 pezeta izango da. Lau aleok 256 orrialde lez osoluko dabez. Ortik, ba, gaur liburuak oso karutu dira-ta, ez da arrizkekoa be.

Gurasoengandik arturiko erentzi ederra dogu euskera. Dagigun guztiak bere alde zertxobatt.

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

Déposito legal: BI 459 - 1968

# MUNDU BARRI BAT

—Barriagoa oindiño? Esango daust baton batek. Jakiña, ba. Askok eta askok, munduan eztabe gura barrizatzerik. Obeti daitezkez bizi. Eurek baiño txartoago iñor bizi danik, cstera, eztabe entzun gura.

Baiña mundua andia da. Asko bizi gara berton ez ain ondo.

Orrexegaitik, baton batek «goazen mundu au barrizatzen» ba-diñausku, gure biotz-barruak zabaltzera doaz berez, barritze orren egarria asetu nairik.

Idazteuna'ren asieran, mundu au barritzen joateko agintzen dautso Jainkoak gizonari. Goiko orrek, bere aldetik bear zana egn eta gero, izadiaren buru gizona jarri eban. Orretarako bere antza emon eutson leenago: adimendun eta aukeramendun egiñaz. Doai biokaz, jainko-txiki bat dogu gizona. Jainkoak amaitu barik itxi eban mundu au, gizonak bere trebetasunez ederrago egin dagian.

Arrezkero, mundu onetara datorren edozein gizasemek, jakiñaren gaiñean batzuetan, konturatu barik beste askotan, emona izan yakun goi-argi batez, mundua barritzen diardugu.

Mundua barriz, guretzat, «sei erri» onein muga barrua da.

Jainkoak mundu osoa emon ba'dausku be, azkenaren buruan, gizon bakotxak bete lur naiko dogu bizi izateko, beteteko, edertzeko t'abar.

Ukondo bete ori: Euskalerrria dogu guk. 7uska!dun eta siñestedun gaiñera: Eleizarren bidez Jesu'ren abots egizkoa artzen dogu.

Jainkoak asikera baten gizonari esana «mundua barritu», egia autoriu bear da-ta, sarritan uste izan geinke, Eleizak aztu egin dauala.

Eleizak betiko egia, aldiari aretako egin bear dau. Baiña, itxuraz beintzat, gure aurreko gizaldietan Eleiza ,mundu oneri begira baiño geiago, besteari begira egon izan yaku.

Erdi-aro tamalgarriaren ondorenetan bizi izan gara oraintsurarte euskaldunok be. Mundu onetan, eleiz-orma barruetatik urten ezkerro, Jainkoak eta guk, ez geunkala zer egiñik, sarriegi irakatsu yaku.

Urte batzuk emen txarto igaro arren, «ango zerua» jadetsi ezkerro, guztia egiña zala, esan yaku.

Orrela, Egia, Jainkoak esana, moztuta azaldu dalako; Egia, egi-erdi eginda emon izan yakulako, Eleizatik kanpora entzun zan barruan baiño zoliago «etorri mundu barri bat egitera; oker dagona aldatzera».

Dei orren **durunduak** itxartu eban **noizbait Eleizren** lema eroiana. Itxartu ta konor-teratu.

Leo XIII'garrenetik, Eleizan bide barriak arakatu ta **artu** ziran

**Asikera** baten moteltxo, koldarregui, baiña tire... jarri **giñan** kristauok lur oni begira.

**Jon** XXIII'garrena aitzakora **eldu** zane-**tik**, bolada onek gogorrago eragin **dautso** Eleizarri.

**Mundu** barri bat egitea bete-betean dago-kiola-ta, lanerako orduak jo dauala esan yaku gero.

Leenago esan dodanez, gizon-emakumeak mundu obetze orretan atertu barik ziar-**duen**, bai. Baiña **lan** ori ez eben **uste** kris-**tau ziranez egin** bear ebenik.

**Gaiñera**, edertze ori, alde askori **begira egin** daitekeanez, lan **geiago egin izan** da, tekniku lanetan, osasun-bideetan, etxe-egintzan, eder lanetan. Baiña ara, munduan **guzti** orreik oso onak eta bearrezkoak **izan** eta be, beste askotan, **ezto** ezertxo **be egin**, edo txarrera joan gara. Atzera **egin dogu** urteak **zear**, alkarri dear dautsogun lotsan, **gizonari** zor dautsogun itzalean; gizon guztiok sorrera bat dogunez, bardi-**ñak garala** uste **izatean**.

Eleiza, onetan, ezta onena izan. Aberatsa, indartsua, aginteduna, andikia, maite **izan** dana

**Dirua** milloika armetarako ta eralgitzen zan bitartean; enda-zalekeria erriak bana-**tzen** eta zapaltzen ziarduenean; adiñera

eldu **bako** ume **asko** meatz zuloetan ustel-**tzen** egozanean; ikastoletako ateak aberat-**sentzat** bakarrik zabaltzen ziranean; itz baten, **gizona gizon** egiteko bideak, **gizon guztiai**, diralako, **zor** yakezan eskubideak ukatzen yakezanean, Eleizak **ez** eban **argi** itzik egin.

Orren faltan, Marx'en dei zolia, **entzun** zan. Askoak jarraitu izan dautsoe. Bako-**txari** berea ba'yagoko, Marx'eri be bai **Zer?** Eleiza noizbait, egi bidetik aldentzen joan. Lurrean. gizonentzat izanik, zerura begira egoan.

Eukitsuekaz alkaturik, txiroen **alde** bearrezkoa osoan **ez** eban bete.

Marx'ek orduan: «Goazan mundu ede-**rrago** bat egitera; eleiz-gizonak irakasten dautzuen ori, logarri bat da-ta.

Lutero'ori eskerrak, Eleizak siñismena oiñarritu eban lez, Marx'en zirikadari eske-**rrak** biurtu da, zati on baten beintzat, egizko bidera, mundua osoan gaizkatzera.

Jesus'ek bere zeregiñen ezaugarritzat, miraiekaz batera, onako **au** eban: «Ezeukiei Barri Ona iragarten yake». Etta Barri Ona, ezta geroko zerua bakarrik: «Jainko-erria zeuen artean dago oraindik eta».

Leo **XIII**'tik arrezkero, «lema-zaiñak» egi-bidetik daroe kristau mundua.

**Euskaldunok, gu** be, naiko logarri iruntsi **izan dogu** geure denporan.

Gaurkoei, Aita Santu Paul'egaz batera «jagi, jagi» abestu daikeoegu. «Errien Aurrerakuntza» **gutun** ederrean lanerako deia egin dausku.

Mundu ederrago bat **bear dogu** egin. «Gure mundua» **inguruko auxe** da: Seirok **bat Europa'n**. **Gure** Euskalerrria galdu ba'ledi, munduko edertasunik ederren bat **galduko iitzakigu**, geure nortasunaz batera.

Barri Ona **gure** Erri onentzat, logarri bat **ez izatea** nai ba'dogu, kristau garalakoa **dogun** guztiok itxartu bearra dogu.

Barri Onaren izenean, **gure** Erri oni ukatu **izan** yakoz berezko bere eskubide guztiak. Ederra izanda, ederragotzen joan bearrean, **itxusitzen** joaku. Ederragotuteko bideak, geienak ukatu izan yakuz. Zerua nai **gendu**ke, emengoaz arduratu barik. Ori orrela ezta izango; lotuak askatzen, itsuak argitzen, ez yakiñak eskolatzen; txiroei Barri Ona iragarten, eta **gure** Erria erri egiten, ez ba'diardugu. «Morroi alpera», «etzaituet ezagutzen» esango dausku Jaunak.

Marx'ek eta bere lagunak, Errien **Aurre**-rakuntza» ta gaurko Eleiz gidarien beste deiak entzun izan ba'lebez, ez eben esango gure siñismena logarri bat zanik. **Artu** eben bidea be, ba daiteke, **gugaz** baterakoa izango ezpazan be, maitasunetik eta gizabaliotatik urrago joatea beintzat.

Gaurko euskaldunok idazki ori ausnartu, ta lanera joko ba'gendu, ez geunke lotan

egoterik izango. Ona emen bertan, beraren **65'gr.** eta 80'garren atalak:

«Erri gazteenak, edo makalenak, eskubi-deai eta bakotxaren elburuei itzal andiagoz begiratu daikeon mundu obe bat egiteko eskuartze eragikor baten eske dagoz. **Es**-kabide **au** bidezkoa da: bakotxaren ardura-pean dago, ori entzutea, ta orri jaramon egitea.»

«Ibillaldi onetan, guztiok gara bide **la**-**gun**. Guztioi gogoratu **gura** izan dautzuet egin bear dan lanaren zabaltasun baltza ta premiña. Lanerako orduak jo dau: errubako aingeste umek bizitzen irautea, zoritxarreko ainbeste sendiren bizitza egokiago batera eldutea, munduko bakea, erriaren bizltzaren etorkizuna gal-zorian dagoz. **Gi**-zon guztiak eta erri guztiak, euren ekintza onartu bearra dabe».

Garitaonandia'tar Gotzon





Euskal erriak ba-ditu, zigatzez efa ibarrer ormiduta, toki baketsuak,  
bai lanerako bat oioitzetarako.

# GURE

# LURRALDEA

Bost zatitan bananduten da, geienez, bizi garean Ludia: Asia, Afrika, Europa, Okeania ta Amerika. Gu Europa»n bizi gara, bazter zar onetan.

Bost lurralde oneitatik jantziena, kultura ta erlejiño-gaietan aurrene Europa na, gaur Europa dogu, Lenago, barriz, antxiña baten Asia genduan aurrelari; ango zelai ta zabal-diak izan ziran —ekarri gogora sumeria-rrakburu lenengo kulturaren sorburu lez.

Geroago, kondaira zear, Europa askoz aurreratuago euki dogu kultura ta zibilizai-koko era guztietan. Eta, gizaldi askotan, nagusitasun ori gizonki erakutsirik, bere indar, jakituri ta arnasa sartu nai izan dau-tsez beste lurralde guztiai be, naiz Amerika, naiz Asia, naiz Aprika naiz Australia'ri,

Europa'ko Estatu bakotzak ankapean eukazan sarri, jopu ta menpeko lez, beste lau zatietako lurralde aberats edo urriak, bertakoai odola, usan antzera, edoski ta txurruptuaz. Kolonialismu eritxon oni. Gaur, susterren batzuk oindiño geratzen diran arren, naikoa uxatua da jauntxokeri ori.

Gaurko Europa»k, aitataturiko bazterrok aga-ta be, errialde azpiratuok euren kasa

itxiagaitik, ba-ditu oraindik indar eta arnasa bereziak. Eta orain daukazan Estatu arteko mugak eratsi edo gitxituko ba'leuz, askozaz be indartsuago genduke. Agintari ta jakitunak ortan dabiltz aspaldi danik, eta goizedo berandu, gitxien uste danean, biziro opa dogun europar guztion batasuna elduko, yaku, ziurrik asko.

Dana dala, gaur be berau dogu oillar gauzarik geienetan: beronen kukurrukura dabilkiguz ingurukoak. Zabal 2.253.020 kilometru laukitu dauz; 320 milloie arima daukaz; berea dau, lurreko errenta osotik laurena; munduan egin eta fabriketan dan galtzairutik arena, au da, irutik bat be bai. Sobietarrak baiño indar-eletriku geiago; bidetan, 2 milloi ta erdi kilometru lez; automobilletan, 32 bat milloi. Europa'n —ots, Inghlaterra'n— dagoz munduko radio-teleskopiorik andienak. Auxe da Europa'ren arnasa. Ta biotz.

Biotz au alan be, kondaira zear, bein baiño geiagotan egon da galtzeko zorian. Bere istoriak ba-daik ori, ondo be. Ipar aldeko jente basatiak goitik jastean, Aprika aldeko arabetarrakaz, turkarren meatxu ta zemai ta gorgorraldiakaz, Ogetamar urteko

gerra amaitu eziñagaz, gorriak ikusi bear izan ebazan. Baita geure gizaldi ontan be, munduko Gerra nagusi biakaz; eurotatik azkena atan be latz eta gordiña. Gure lurralde au, 1945'an, gainbera jausia egoan, porrot eginda, biotz-danba barik, il-zoriko geldian murgil. Sei urte luzeko guduak lorratz sendoa, sakona itxi eutson Europa'ri bere narru odolduan. Berlin, kea erion txondorra zan; Erroma'k, taukada barik, Kaisar Zeiak sastegi biurtzen ikusi ebazan; Paris, Hitler'en betoskopean lez aurkitzen zan oindiño, bildurti ta oin loka.

## **GERRA OSTEKO BIZTUTE ARRIGARRIA**

Ori bakarrik? Kalte zeatz eta jakiñak be ba-ziran, egiazko galtzeak, osatu eziñak, uri andietako estetika ta apaindurakaz zerikusirik euki ez arren, naziño bizitza osoz azpi-janda itxi ebenak.

Bide zabaletatik ezin zeitekean ibilli. Automobiltegiak utsik egozan, edo etziran naikoa, ezta urrik emon be. Sei urteko ardua, larrialdi ta kezka biziakaz lanerako oitura ta arreztasunak moteldu egin ziran, askoz beintzat. Errekara joanak ziran familiarik geienak. Zerbait osotzeko barriro asi bearra zan, nai ta ez. Utsean saltu egiñik edo? Zelan edo alan.

Zorabioak artu leikean estadistikak irakurriaz: sei, zortzi, amar milloiraiño ziran

ildakoak. Zementurik ez etorren arrobieta' tik. Tximist-indarra, beerengo maillan; gasogenua, kruselua, ta zer-jana eskuratzeko, raziño-liburuxkak. Ori zan orduko ikusizun tristea.

Andik bost urtera, orraitino, zelai illun a osoan aldatu zan. Marshall Egitamuko milloika dolarrak lenengo frutuak emoten asi ziran. Europa'ko len-ekonomi-alkarteak be ba-ebiltzan euren lanean, edo etorkizunerako gogo onez ta asmo bikaiñez gaiñezka agertzen yakuzan beintzat. Europar guztien nai bizia, garai atan beiñik-bein, bat-bera zan: Europa obe bat jaso, aurretikoen oker ta utsetatik jareginda jaso be.

P'ozak ikututa, ondamendi ikaragarriaren ausiabartzatik, lanerako gurari benetakoa sortu zan alde guztietan. Eta, sorginkeriz lez, fabriketako tximiniak keetan agertu ziran. Nun? Illabete batzuk zirala gerrako lerkai ta bonbaz zuluturiko lekuetan. Etzan sorginkeria, ez. Europa zan, bizi naiean.

Ez egoan bitxabalik, baiña Ikastetxe nagusietan eskolatzen ziran gazteak, aurrekoak baiño be obeak, barri batzuk marrazten zituen, zarren oar-ikasiz eta euren buruak eioz antolatuak nunbait.

Gerrako bonba ta lerkaiak, egia esan, arako zubia eratsi eben, ango edo emengo gurutz-bidea zuzitu. Baiña triskantza ikaragarri orrek ez eban Europa'ren arimea ondatu al izan. Ez, zutik egoan oindiño bere jakituri arnasa; bere goragoko deia, sendo ta bakan, porrokatu barik.



## DIRUA TA TEKNIKA

Eta senera etorri ta lengoaz jabeturik, indar-bizkortze izugarri ontan, etziran naziñoetako agintari ta arduradunak bakarrik izan. Sarkaldeko alkarte barruan beintzat, ekonomi aurreratze oni kemenik indartsue-na ezarri eutsona, egoki da esatea, erritar bakotxaren diru eralgitzea, inbersiñoa, izan zan.

Pertsona edo famili bakotzak jarten dauan diru ta indar laguntasun barik, izan be, eziña dozu errialde bat ,onelako trisku, zatikatze ta ondamendi baten ondoren, barrien barri adorez bete ta aurrerapen bidean trebe ta moldetsu ipintea.

Diruak diruari dei dagio, esan oi da errian. Eta, teknika arauz, trikimaiña bat aurkitu dautsoe ekonomi-zaleak erriko esae-ra oni, Ugaltze izena ipiñiaz, Eskerrak oni, arako lantegi, negozio, garatz baten ipiñi ta eralgiten diran 1.000 pezetak, 5.000, 10.000 naiz 20.000 pezetara elduko yatzuz, beste eginkizun batzueri, bigarren mailla-koi bultz eragin eta irabazpide ugariagoak ekar-azoteko balio dautzue-ta.

Ugaritze olatu miragarri onek beregan dauan indarrari esker, Europa'k bere tris-kantzak eta eraso-zauriak osatu ta bir-jaso-teko gastau zitun 500.000 milloi dolarrak, pixkaka pixkaka, azkenik ez dauan kate sekulako baten antzera, luza ta luza joan dirala autortu bear dogu, gaur zabalik da-kusgun gain-giro ta goraldi eder ontaraiño eldu arte.

Europa'ko Estadu danak, baiña, ez dabe ainbesterik ez neurri bardiñean eralgi ta gastau izan. Oneik geiago, areik urriago. Lenengo urteetako birjasotzea ta lanak bu-rutu ostean, ortarako gorde diru-mordoak arduraz aukeratzen asi ziran naziñoak, ba-kotxak urtez urte ta beren-beregiko jomu-gatzat eukezan gastu premiñazkoena begi-ratuaz. Teknika gaien, barriz, atzeraturik egozan naziño batzuk —Greziak esatera-ko—, euren diru aurreraturik geiena obari-iturriak azertu ta langille bereziak eskola-tzeko erabilli eben.

Erreiñu Batua, ostera, lenengoaz naiko-turik edo, azterketa barririk, ia bape, egin barik egon yaku urte askoren buruan. AAundu zarreko alderdi ontan berak eralgi ta inbertidu dau dirurik gitxien, barruti orri buruz.

Datu guztiz gogoangarria da, urtean lan-gille bakotxeko ezarri ta eralgi oi dan di-ruari buruzkoa. 1960'garren urteari gago-kiozala, Suiza'n 895 dolar eralgi ziran lan-gille bakotxeko; Suezia'n, 828; Alemania'n, 656, eta Espaiña'n, 131 —9.170 pezeta lez—.

Aurrera begiratu ezkerro, ba-leiteke gaur eguneko abiada ontan, luzaro beintzat, ezin iraun al izatea. Aurreko urteotan, ain zuzen, Europa'ko gobernuak eta bakotxaren lan-gintzak egin zituen eralgiteak zerbait gitxia-go izan zirala dirudi.

Puntu auxe daukagu argi: lurralde zar ontako naziñorik geienak bide erclira baiño ez clirala eldu euren eralgi-asmo andietan.

Uste danez, 1960 ta 1975 bitartean, industri barrietan, makiñak erosten, erriak apaindu ta jazten billoi bat berreun ta irurogeta milla milloi dolar inbertidu ta eralgiko dira.

Zorabioa dakarskue emen orraztuten diran zenbakiak, eta are geiago pezetatan emon ezkeru. Baiña pezeta orrei eutsi ta lagurdu bearra ezta, iñundik be, buruko min gitxiago dakarrena.

## **DIRUA NAINON EZARRI**

Europa'ko ekonomi-mai gaiñean, eguerdiko eguzkitan baizen argi auxe da ikusten: dirua, ezeren koxka ta eragozpen barik, ara ta ona dabillega. Mugaz andik ibilteko be eztau igaro-agiririk bear. Beljika'ko Bankuak Espaiña'n ixuriten dabe euren dirua; talia'ko lantetxeak Australia'n jasoten dabez kideko ta ordezeko lantegiak; an naiz emengo etxe eusleak Grezia'n sortzen dabez merkatu gaiñetiko saldu-kateak.

Beraz, Europa'ko dirua ibilli dabil dantzari. Naziño arteko mugaldeak zearkatu ta gero ta obari-kate lodiagoa osotzen etenbako ekiñean diardu. Garrantzi pizkat dauan negozio ta garatz bat bera be ezta geratzen, lurralde ontan diran beste antzeakoak artu-emonean sartu ta alkar-korapillo estua egin barik.

Kondiziño ta erakunde orretan, egia esan, porrot egite baten eragiña —lur ikara lez

edo—, iñok uste ez izateko moduan, kilometru asko ta askora eldu daiteke. Paris'eko naiz beste edozein lekuko diruaren urteera on batek, ariñago ala geroago, zoriaren aldakuntza izan leike, baita Itali'ko egoaldean oso jausita aurkitzen diran uri, erri ta bazterrentazt mesede ikaragarria be.

Diru-ezartean joko ederrak burutzen dira, inportantzi andiko ondorenak lortu ta eskuratuaz. Ez bakarrik ekonomi-usan gero, bizitzako beste era ta jokabide batzuetan sarri dakusguz antzeko ondorioak. Eta kondaira bera, au gogoan izanik, beste modu batera aitu geinke. Oraingo europar bako txak, izan be, lengoz beste pentsakera bat artuaz doa ,ta ez yako bape nekeza izango beste itxura baten oretuta bere etorkizuna eratzea.


## **ETA EUSKALDUNOK?**

Arlo oni gagokiozala, au da, diru-ezarte ta eralgite kontuan, euskaldunok be ez goaz orren atzeratuak.

Anai arteko gerratean sekulako triskan-tza ta zapaltzea ikusi eban gure lurak. Baiña oindiño ba-genduan amasa geure izate barruan, eta amasa orren su-piztea ikaragarria izan ez danik, nok esan daike? Ogetabost urte oneitan, zelako aurrerakada egin dauskun Euskalerrri osoak, edo mugaz onunzko lau probintzietan beintzat.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta Naparróa gaur, industri ta sal-erosketan baitik bat, Europa'ko lurralderik aurrengoan pare jarrita daukaguz. Gora-nai au ezta oraindik gelditu, ta nekez geldituko be, naiz eta aldiak bere goraberak izan, eta ango ta emengoak eragozpenak jarri,

Eta emen be —zabal autortu daigun—, Laterriaren laguntza baiño norbere alegiña, amasa ta borondate ona, geiago izan dira, Gerra latz baten erpa artean lur-jota geratu yakun euskal erri bardinbako au jaso ta edertzen danok eta bakoitza saiatu gara.



# Zuzenak, nortzuk dira

Umearoan era bitako lagunak ezagutu nebazan. Zuzen tegi bat ezagutu neban, beti on egin nairik. Zintzotasuna, gizontasuna, zuzentasuna ikuMen neban onen artean. Argi bat legez ziran niretzat. Ta neu txikia izan arren, jokabide ori atsegin jatan. Indar bat emoten eustan gizabide legez, Dei orrek ez eban nire barrutik aldetan, nai-ta ni mutil txikia izan,

Onaren deia zan. Ta onak berez dau egi indar eragillea. Lagun arek on egiten ikusten nitun, errian. Erri-zale ta Jaungoiko-zale era batera ebiltzan. Au zan nire mutil aroko aretzako eretxia. Erri arazoetan, egiz eta zuzentasunez jokatzen ebela neritxon. Erri bizi-bideari begiraturuz, arduraz agertzen ziran, zuzenak izan zeitezen, eta ez mingarriak.

Jokabide onek beragan eroan zuzentasunaren argia. Ta argi onek, zuzentasun berbera zan Jaungoikoagana, jasoten ebazan. Gizon aren zuzentasuna antxe indartzen

zan. Gizon aren zuzentza-zaletasuna ta Goi-koaren artu-emona batera ebiltzan. Egi ta zuzentasunak, erria ta euren Egillea maitaztera eroen,

\* \* \*

Bizitzako gora-beretan, beti, ikusten nitun leial. Argi bat euken, eta bide bat. Egia, on egin ta zuzen ibiltea ziran eurentzat gizontasunak, berez, eskatzen ditun zerik ederrenak. Olantxe argitu ebezan bizitzako artu emon, bear eta arazoak.

Beti izan dira ludian arazoak. Baita bakotxaren bizitzan bere esturaldi negurtzalleak, baiña zer onez orniduta egozan arek; bide zuzena iñoz ez eben itxi bertan bera. Aitz baten zatiak gorputz bat gogor osotzen daben eran, egiz, zuzentasunez, azkatasunez ta maitasunez jokatzen eben lagun arek, gizon gizondua sortzen eben.

Egia aurrera aterateko gertu, zuzentasunari bidea emoteko indartsu, azkatasunari jarraitzeko leial eta ziur; maitasuna biotzean gizarteko zuzendari.

\* \* \*

Baiña zori-txar guztien burukoa eldu zan ordu baltzean. Gizonak burruka. Negarra zabaldu zan. Mendiak eta ibarrak gizon odola erioen.

A zan gizon zuzenen barru-giroa agertzeko aldi egokia! Egiz, zuzentasunak nainun agertzen dau bere urre izpia. Ta zuzenez

jantzita egozan gizon sendoak garbi zabaldu eben gogo. On egiteko leia indartu egin jaken.

Euren bizia beste, iñorena maite ebela zirudian. Or, emen, on egiten ikusten genduzan. Mesedeak eskeintzen. Euren bizia arriskuan ipiñita, iñoren ondasuna jagoten.

Zer geiago egin legike gizon zuzenak? ñoz ez eben alogerik eskatu egindako mesede-bearren orde. Garbi jokatu eben laguntzen. A zan zintzotasuna ta siñismenaren indarra! Egiz ziran gizonak. Ta burruka egin bear ba'zan, be, euren bizitzako oiñarri sakonei ez eutsen, iñoz, ukorik egingo.

Zuzentasuna ta siñismena ziran zuzendari. Ta oneri men egiñez bizitzan jokatzea, aren egin-bear nagusia.

\* \* \*

Gero egun baten gauzen aldakuntza eldu zan. Lengo gizon zuzenak estura ta ezbearetan aurkitu ziran. On egitez ta mesedez beterik eben euren barrua. Erantzupena ezeren zama ta laztasun barik, garbi, giza-diaren aurrean. Ta, alan be, etsaiak agertu yakezan, otsoak baizen odol-zaleak. Batetik besterako jazarpenak asi ziran. Era guztietako nekeak ikutu eutsen gogo ta aragi bizian. Ain onak eta ain zapalduak! Zeruak daki euren barri.

On egiñaren ordaingarri, zigorra etorkioen alderdi guztietatik. Baiña mesedeak arturikoak nun dira?

Oi! On egiñaren esker txarra... Mesedeak nartu ebezanak, bestiekaz alkartuta dabiltz. Len erruki billa, laguntzaren zain; baiña orain, arturiko on guztiak aztuta, ez dabe ikusten, eskar onez, zer ordaindurik.

Baiña, zer...? Olan izan ete leiteke?

Egieder



Prailleak eta cleiz-gizonak beti jokatu dute zintza egiaren alde, esku artean dituzten bide guztiakin.

# D I Ñ O E

1967

Jazoerarik andienaak, EFE ajentziak diñoanez, oneik izan dira.

1. Arabe ta judeuen artean «Sei Egune-ko» burruka.
2. «Txe» Gebara'ren eriotza, ta Debray'ri egin dautsoen epaia.
3. Libra esterlinak egin dauan gain-bera.
4. Afrika'n izan dan biotz-aldaketa.
5. De Gaulle'k, Inglaterra'kin dauan istillua.
6. Viet-nam'go burruka.
7. Txina ta Errusia'ren artu-emonen osketa.

## DIRU ERALGITEA

Naparroa'ko Aldundiak 370 milloi inguru gastauko ditu. Bere Lan-Saiaketa gastuetan, errege - bideentzako 146.996.533 pezeta emongo dauz; aurtengo urte zarrean emon dauan baiño 10.649.891 pezeta geiago.

Zortzigarren atalean sartzen diran beste xaupenak, oneik izango dira: basoetarako 78.410.771 pezeta; oneitatik 53.448.000 pezeta zugatz barriak sartzeko. Larre-soloetan eta beste abel-janari-lurretarako be izango da bere laguntasuna. Nekazaritza ta Abereetan be 88.269.906 pezeta eralgiko dira.

### Atomik-indarrola

Aspaldian dira Armintza'tik Bakio'ra errege-bide barria egitekotan. Eta asmo au, oraingoan antza, burutuko dabe.

Eta ortxe berton, Armintza'tik laster, itxas egalean, Iberduero'k jasoko ei dausku laster zentral aundi bat, tximist-iturri lez atomu indarrari protxua aterateko. Espaiña'n, beste iru lekutan be ba-diardue olako zentralak eregiten, Vandellos'en (Tarragona), esaterako, Zorita'n (Guadalajara) eta Garoña'n (Burgos), Ebro ertzean, Araba'tik ur-ur.

Bizkaia'n jasoko dan indar-ola au, erriz, Lemoniz'ko lurrean egongo da, Bilbao'tik 20 kilometrura; ta indarretan milloi bat kilobatio eukiko ditu, Espaiña'n jasoten dabilzan andienak baiño bi bider geiago.

Orrela, Bizkaia jarriko yaku gorenengo, tximist-indar arazoan. Eta onek mesede ikaragarria ekarriko dautso gure industriari.

### Eskola gitxi

Mundua aurrera doala, baiña gure artean ba-dogu oindiño aurrerago jo beara. Espaiña'ko eskola Batzarra oraintsu batu da Madrid'en, eta an esan dabenez, 1.200.000 ume dira Espaiña'n eskolarik artzen eztabenak. Orreitatik, 85.000 ume Madrid'en bertan.

Euskal lur onetan be, naiz ta orniduago egon, ba-dira utsune ederrak. Eta ez Otxarkoaga'n bakarrik. Munduan zabalean, gaurko egunetan doguzan aurrerapenak ikusi ezkeru, ez ete gabiltz naikoa atzeratuak?

### Langillea ezta tresna

1. Beargin bat ezta lan-tresna, gauza ezteanean albora botatekoa. Orrela, ain gordinki esanik, ezta iñor ere ausartuko egi au ukatzen, baiña egiatzko bizitzan ba-dira erarik asko, naikoa txurizkatuak, oker ontan erortzeko, pertsonarekiko duintasunaren kontrakoak noski.

2. Pertsonaren zerbitzurako da dirua. Azi-orrazietan, ordea, bestelan gertu oi da, ta pertsona da diruaren zerbitzurako dabil-

kiguna. Ta dirua dionak, ekarri, eralketa, ekonomi ta abar dio.

3. Langilleak eztu errez, berak baka-ririk, bere burua zaituko. Ortaz gizarte-enziklikak argi bai argi diote langilleak eskubidea dutela «askatasun osoz beren al-karteak sortzeko, beren legezko eskubideak egiazki zaitzeko aiñakoak, ekonomi bizitza era ta zuzenki burutu al izan dezaten; baita ba-dute, ezertariko mendeku ta asper-arrisku gabe, beren jokabidean nai erara jarraitzeko eskubidea ere».

4. Ezta naikoa lege babesleak eukitzea, Lege oiek bete egin bear ditugu, ta orrez gaiñera egoki ezarri. Ez dezala diruak, ez indarrak, zuzentasuna ito-azi.

5. Lana, pertsonaren eskubide degu. Beraz, gizartea ezta zuzena, ezta kristau ere, lan egin nai duen edozeiñi era diñean egi-teko bideak ematen ez dizkion bitartean. Siñesle danaren begietan, oztopo galgarri dira lan gabekoak.

6. Gure lur-zati ontan naikoa ondasun daukagu berrien sorburuak aurkitzeko ere, ta norberak ditun ekonomi-ondasunak norberetzat bakarrik erabilli, berak bakarrik aiekin aukera gozoan bizi, edo sal-erosi ta nai duena egiten erabilli, edo-ta kaxetan zar-pentsaeraz iraun-aztearren gorde, au guzti au ezta bidezkoa. Orduan, Aita Santu Paul VI'garrenak, «Errien Aurrerakuntza» deritzaion enziklikan, «moral atzerapenaren erarik argiñean» esaten duen zikoizkeri gorrian eroriko giñake.

## Ildakoen biotzak

Mundua teknika auzian, ots, industrian batez ere, aurrera dijoala, osasun gaietan ezta gutxiago abiatu. Erraldoi edo basajau-nen pausuz doa aurrera.

Nork esango zuen lenago, edo oraintsu, urte batzuk dirala, ildako baten biotzakin beste bat bizi zeikeanik? Eta ori ere lortu degu.

Joandako urtearen azkeneruntz, orta-raiño ere, iritxi zaigu gizonaren jakituria. Ez, ez dago dudarik: naiz-ta Washkansy eriotzak azpiratu, ikaragarritzko aurrerakadea izan dala osalari guztientzat, eta baita munduarentzat ere. Ez al da arritzekoa, gizon bati lanean ari dan biotza kendu ta bere ordezt beste ildako batena jarri, ta lanean jarraitzea?

Onako biotz aldatzeak egin dira, egun-okaz be, Ego-Afrika'n lenengo ta Ipar-Amerika'n gero. Geixoak oraindik —Kasperak eta abar— ez dijoaz ain ondo, baiña denboraz iritxiko dute ezereen arrisku gabe aldaketa oiek egitea.

## Illargira laster

Aspaldian dabil gizona illargiaz jabetu nairik. Eta, azkenean ere, iritxiko du, urte gutxiren buruan. Antziñako amets ori, koro-ederrez estal-aziko du.

Kennedy Lur-muturretik oraintsu bialdu-riko «Surveyor 7»'k joanaldia poliki egin zuen araiño, ta oraindik ere or dabilkigu ango lurraldeen arpegi ta itxurak arrapa ta guri bialtzen. Aurtengo ilbeltzaren asierako egunerokoak, beintzat, ainbat argazki eder damazkigute ark aterata.

Gure izarbel negartiak ba-ditu bere bizkar eta konkorrarrak, arkaitz kate luze ta gorabera aundikoak, alegia. Toki txarrak, ziurki, emendik ara dioazten astronauten ontzientzako. Baiña aurkituko dituzte zelai zabal ederrak ere.

Pakea!, Pakea!

Gure Aita Santu agurgarriak, Urte-Barri asikeran munduari bialdu zion mezuan, onela:

«Guri, gizonoi, Egintzako mailla gorenean gaudenoi, Jainkoaren antzeko egin bai ginduan Berak; guri, diot, eskeiñi ta iragarri zaigu Pakea.

«Au eman zaigula ere, gure bizitza onetan artu ditugun doai guzien koroitzat, eta oni eskerrak eskuratzen du bizitzak berak bere balioa ta bizitzeko degun arrazoia.

«Pakea, zuei, anai-arreboi, Jaungoikoaren Egille-Borondatearen eta Erosle-gogoaren ume artuoi. Pakea, egun bedeinkatu onetan! Egun au baita Jesukristo gure Jaunaren bizi-asierari eskeiñitakoa; eta Kristo baita izaki guzien aurrena ta Gizadiaren Ereclu sortua».

NOR DA?

1. Tximist andi ta euri gitxi?
2. Akerraren adarra baiño gogorrago?
3. Begi gaiztokoa?
4. Aita langillea ebana?
5. Guzurrik ez esaten eta ez Jainkoa?
6. Ez gizon ez andrazko?
7. Anka ausita ta buztana labur?
8. Atetik urten ta leiotik sartu?

NOR DAN

1. Arroputza.
2. Zikoitzaren biotza,
3. Bekaiztia,
4. Alperra.
5. Ixillik dagoana.
6. Ezertarako on eztana.
7. Guzurra.
8. Gastatzaillea,



# GURE SUKALDEA



Etxeak, eta etxean sukaldeak, inporiantzi andia izan dau nainun. Euskalduna, guztiz sendo, etxeari atxikia bizi izan da, gizaldietan zear. Guretzat etxea, izan be, lur eta abaro da, eleiz ta ilierri, senide ta bizien batzar lekua; baita oraingo bizi-lagun eta aurretiko arbasoen arteko alkarpidea be, Barandiaran jaunak diñoskunez. Zenbat oitura, ekandu ta mitu daukaguzan etxearen inguruan!

Ori daia-ta, berau al bait txukunen eukitea gure egikizunik beifena izan bear dau. Ortarako dagigun edozer gauza begi onez dakusguna danik, ezin leiskigu iñok ukatu.

Oraintxe be geure jaio-lur, biziieku ta eleiz dan ezkeru, berau apain ta dotore eukiten alegintzea, egcki ta bildezko yaku.

Ikusi gaur zein ederto jazten daben gure etxeke andreak euren bizi-oiña. Ez sukaldeak bakar-bakarrik, zerbait ba-dira beintzat, dala baserrian tí'ala kanean, euren bizitokiko zer guztiak be bai. Tresna, arasa, jantoki, jantzi-leku, aulki, idaztitegi ta abar, gauza guztiak daukiez garbi ta dizditsu, baktotxa bere eifnean.

Alderdi oni begira, izan be, azkeneko ogetamar urteotan, aurrera ta aurrera joan gara. Garbi ía eroso, nasai bizi gurea ager-

tzen da nun-nai. Ta gaur, ainbat gastu egin oi da sukaldea apaintzeko. Bear arin ta eroso bizi izatearren.

Gure sukalde bateko gastu guztien altzoan toki berarizkoa daukie gaur etxeko indar-tresnak be. Zeintzuk gero? Gasez, indarrez edo butanoz egiten da gaur sueteko lanik geiena, janaria gertatu, jantzi ta erropak garbitu ta olakoak. Nok ez dauka gaur, gurean be, garbiketarako makiña bat? Naiz kafea ta aleak, garauak, edozer gauza apurtzeko tramankulu bat? Edo-ta aragia, jakiak, arraiña, ortuariak eta edariak larregi berotu barik gordeteko oztegi bat?

Azken urteotan Europa'n eztau ezek be sukalde zeregiñetarako tresna barri sartze onek aĩñako aldakuntzarik egin. Toki guztietan, ixil ta baketsu, ia igarri barik, sartu yakuz zernaitarako aurrerapenak. Gure sueste ta eskaratzai be antxiñako itxura zarra asko aldatu yake. Obera egite au ondo daukusgu. Gora-min baten ezaugarria baita.

Etxeko andrearen amesa illeroko pre-supuestoa izan oi da: ez bakarrik aren laguntzaz illaren amairaiño slclu. Geiago. Bere premiña ta bearrizan guztiak, bat-bera itxi barik bete, orniduteko lain izan daitela. Gaur ezta oindiño ain erreza gai ortan nasaĩ ibiltea.

Gure etxeko andreak gaur —zoaze ta ikusi— jatekotan gastatzen ditu diru-mordo andiak. Daukana janaritan doakiola, esan oi dau sarri. Ta auxe da, izan be, bere erai-gietan zulorik itxi zaillena.

Ondoren, tarte ta uts barik, jantzi korapilloa datorkio. Baiña Europa'ko emakumeak eztau Ipar-amerikarrak beste gasta-tzen; pertsonako 10 bat libra algodoi, urtean; Ipar-amerikarrak, osterá, 23 libra inguru.

Gure lurraldean gaur, pertsona bakotxak urte barruan 90 dolar, edo geiago, daroaskuz jantzitan. Oraingo diru-aldeketari gagokiozala, 6.300 pezeta urtean,

Toki danetan ez da bardin, egia autor-tzeko. 1960'garrenean, sueziarrak, pertsona bakotxaren tokamenari begiratur, 125 dolar gorde ebezan jantzitarako. Gaur, ziur-ziur, 200 dolarrera elduko dira.

Oraĩñarte beiñik-bein, irrati edo radioak be, bere leku garaia izan dau gure sukaldean. Gaur, modatik erdi joana dala-ta, ez dogu orren aintzakotzat artzen: gaur, andrakilla baten *antzera*, etxeko toki jagi batean apainkeri lez euki oi dogu, egun barruko momeniu berezi batzuetan, edo-ta musika naiz itzaldi naiz pelota partidu edo bertsolari saio bat entzuteko. Besteetan orain, telebixta —urrutikuskiña— ernegariago yaku-ta, au darabilgu txitean pitean, sarri era ta egokitasun barik erabili be.

Telebixkak, alantxe da, bere papera dagi gure sukaldean, garrantzi andikoa guztiz. Lenengo lujuzko lez agertu zan, orain edozeiñek, nai izan ezkeru beintzat, eukiteko moduan daukagu. Batzuk jakin-miñez, beste batzuk arrokeriz, arek ikasi-naiez, besteak ingurukoak baiño gitxiago ez izatea-

gaitik, ia sukalde guztietan leku egin dau-  
tsagu tresna bitxi orreri.

Ona Europa'n, pertsona bakotzeko zen-  
batek daukan telebixta artzaille bat: Norue-  
ga'n, 33,3; Austria'n, 24,4; Prantzia'n, 18,2;  
Beljika'n, 11,2; Alemania'n, 9,2; Suiza'n,  
5,7; Inglaterra'n, 4,5, ta abar.

Eta orain daukaguzan aurrerapen guz-  
tiok teknikari zor dautsoz gizonak. Talde ta  
aldra andietan bizi gara, ta zek ekarri daus-  
[u au? Aurrera ta aurrera doazan jakintza  
ta teknika ezaubideez gaiñera, fana bana-  
tuta eratu dalako. Auxe izan da, dudarik  
bage, gaurko aurrerakuntzari bultzakadarik  
andiena emon dautsona.

Telebixta sukalde guztietara eldu ez ba-  
yaku be, urte gitxiren buruan elduko da,  
ta berezko ondorenez, bizi-oitura ta ekandu  
osoz bestekoak sortu dauz, ta sortuko ditu  
oraindik beste barri-barri batzuk, bsita iz-  
keta ta autu bereziak be, orain amabost  
urte guk ezelan iduritu ezin genduzanak.

Biibao'n, Donosti'n, Paris'en, London'en  
naiz Madrid'en miilakak, milloikak gauza  
bardiñak egin daroez, beti ordu bardiñetan.  
Bakotxak dauan ao-gozo, zaletasun eta gus-  
toari, bakotxaren urte ta ogibideari dago-  
kion erara, errez esan daikegu, arako orduz  
ta arako etxeian zenbat pertsona egongo di-  
ran teiebixta ikusten, eta andik ordu bira  
zenbatek entzungo dauan urrengo musika  
ekiñaidia. Nik neuk ba-dakit, okerrik bage,  
Loiola'ko euska! irratiak noiz emoten dauan  
neuri atsegin yatan musika, izketa, abesti,  
aguriza, izkirirrsin ta olako edozer

Gaur ipurdikara ta kanpo-zaie gara; gel-  
ditu barik gabiltz andik ona, baita Late-  
rrietako mugaz andik eta emendik be. Gaur,  
Europa'n, ia ez dogu mugarik, Europa Batu  
bakarra baiño. Jente arteko artu-emonak,  
erri arteko izketak, oraingo bizitz-itxura  
osoan aldatu dabe, ta gizarte-gustoak sai-  
llean, parrastaka lez osotuak doguz. Danok  
bardin ete? Zelan, baiña? Guztiok bardin  
itz egin, bardin jantzi, gauza bardiñak eu-  
ki, esan, entzun, ikusi, egin. Au ez litzake,  
barriz, egoki izango: Jaunak be ainbat gau-  
za ezbardin sortu ebazan.

Tamalgarri izango litzake bakotxak bere  
izkuntza, bere oitura ta gogo bereziak gal-  
tzea. Guk be, euskal lur zoragarri ontan,  
millaka urte askotatik, emen daukagu geure  
txoko berezia, arima apartekoa, dantza, iz-  
kuntza, lege ta ekanduak, eta eurok gal-  
tzea ez litzakigu eder. Gaurko zurrunbillo  
ontan, barriz, geure izakera oso-osorik gal-  
tzeko arriskuan aurkitzen gara. Ortaz, Eu-  
ropa Batu onen barrutian be, geurea dan  
guztia, albait garbi ta zeatzen, zaindu ta  
gordeteko lerrenak egin bearrean gagozanik  
ez daigun ukatu.

Ba-dogu beste gizarte gusto bat be: ara ta  
ona ibilli bear gorria. Len etzan olakorik.  
Len jaio ta il, asko ibilli barik, toki bat-  
berean egin oi zan, euskaldunok beti be  
adur-zaie ta dantzari ta ibilkoi izan ba'gara  
be.

Gaurko egunean diru-mordoa eralgi ta  
gasiatsen da, ibilli ta ibilli. Sarreretako

euneko 15 beintzat ibilten doakigu, ta ez bearrezkoak diran ibiltaldietan be, gaur turismo deritxogun premiña andi bako txangoetan baizen. Turismua esaten yako, bai ibilli naiari, ez derrigorrez ibilteari,

Ta nundik nai ibilteko zaletasun au asko erreztu dau orain ainbestean ugaritu yakun automobillak. Munduko bigarren Gerra Nagusia amaitzean, Europa guztian zabaldu zan, naro ta aukeran, bakotxa bere kotxea eukiteko griña ta leia bizia. 1950'tik 1962'ra bitartean, argi ta garbi, bost bider geitu ziran Europa'n tarranta ta automobillak; eta 1960'garrena asterakoan, 3 milloi ta geiago ziran urtearen barrun egiten ziranak. Orain, ia 1970'garrenaren atarira eltzean, bizi-bizi doakigu aldatz-gora etorpede au.

Europa'n, 1962'garrenean, 29 milloi kotxe lez egozan, eta ia 7 milloi kamio ia autobusak. Prantzia aurkitzen zan Europa'ko buru kotxe txikietan —7 bat milloi—; Ingalterra etorren gero —6,7 milloi—; eta Alemania ebillen beste bion atzetik —6,1 milloi—.

Ori dala-ta, bideak be, ito-itoan gurean beintzat, gaurkotu egin bear izan dira; zabaldu, edegi, nasaitu. Ezia emen beintzat

lar. erreza, ainbat aitz, arbel-punta ebagi ta moztu, ainbat oker-une arteztu bear dalako. Gobernuak, ortarako, diru-mordo galantak ixuri bear izan dauz, joan dan urtean Bilbo'tik Donosti'rako errege-bidean egin dauanez.

Europa'ri gagozala, barriz, 1956'garren urtean bertan bideak atondu ta zaintzeko gastatu zana 2.000 milloi dolarreraiño izan zan. Osteko urteetan askoz gorago igon eben zenbaki orreik. Lau urte geroago, arazo berberean, 4.000 milloi dolar xautu ziran.

An-emen tunelak zuíotzen, bideak nasaitzen eta autopistak egiten, atsedan barik diardue Europa'ko naziño guztiak. Kotxeak eta turismua alagiñean ugaritu diralako, an naiz emen kili-kili bai dagi premiña latx orrek. Eta premiña orri erantzun bearrez egiñiko lanaren ondoren bikain lez, or daukaguz gaur, Itali'n, Alemani'n eta Prantzia'n batez be, bide zabal luze dizditsuak.

Gure artean be lasier izango dogu, Beobi'tik Bilbao'ra, euska! lur osoa lez zearkatu rik, etorriko yakun pista zabala. Olako baten bear-izana danok nabaitzen dogu.

X.



# Europa'n zer jaten degun

Gure lurralde zar ontako maia, ezta nolanaikoa ere. Nolako usai gozoa duen jakiteko, baiña, sukaldeetako ixilla urratu bear, eta urratua degu dagoneko: estadiskikak eman digute ixil orren berria.

Bai, gizona! Gure jakin-naiaren sorgin biurra —isats gaiñean jarria noski—, dana aztertu ta arakatzen saiatu oi dena, Europa'ko mai gaiñeko zamau zuri, urdin, orlegi naiz laukituraiño iritxia degu.

Eta, ezin ukatu iñundik ere. Ikuskizun baikorra, atsegintsua aurkitu du geienik. Ez degu, beraz, zertan ikaratu. Bein baiño geiagotan, aur txiki antzera, txaloka ere asi zaigu. Ez bai gera orren gaizki bizi. Lengoak baiño obeki, alajaiña! Beste zer batzuetan akatsak izan arren, ontan, ez orixe!

Oraingo inglesak batez beste, Gerra nagusi aurrekoak baiño bi aldiz esne geiago artzen du; ta arrautzetan ere, beste ainbeste jaten omen du.

Erdi-maillako alemanak, au da, kaleko gizonak, bere aldetik, lenengo gerratekoak baiño birritan fruta ta arrai geiago irentsi oi du.

Prantsesak, ordea, gaztae jale biurtu zaizkigu. Munduko gaztae egille trebeenak eurak dirala dioten ezkerero, ain zuzen ere azken urteotan iñoizkorik zoli ta leiatsuen, beren gaztae —Roqueforts eta Griyoresak— jan bearrari emanak bizi dira. Igali ta fruta jatea ere *era* berean ugaritu dute, azkenik ezpaitu aien sagar, udare, okaran, granada, platanu, laranja ta olakoen xautu bearrak.

Italiarrak berebat, sail ontan, ez dira atzera gelditu; jan-edanean marra bikaiña egin dute. Azkenengo berrogei urte auetan guztiz goxo ta azukre zale azaldu zaizkigu, ien baiño iru bider geiago ziplaturik.

\* \* \*

Maieko gastuak, jakiña, bertatiko erantzuna daukate pamiliko dirukontuan. Europa'ko bakoitzak bizi izateko gastatzen duen dolar bakoitzeko 31 zentabu jan-edanerako díra. Euskera garbian onek au esan nai du: gaurko europar bakoitzak eralgi ta gastatzen ditugun irurogei pezetatik, ogei inguru beintzat, zeisaskira, jateko saskíra noski, botatzen ditugula.

Baiña, nun al degu neurririk jasoena? P'amiliko janaritan, nortzuk gastatzen ote dute geien? Erri aberats ala txiroak? Ona gauza bitxia: errialde ezeuki ta pobreetan, besteetan baiño geiago eralgitzen dute.

Lurralde aberatsetan, oso-osorik bestera gertatu oi da. Bizi-maiñarako gordetzen diran sarrerak neurri kaskarragoa dute. Pamilya auen jan-saria bestetik ezin-obetzat daukate,

\* \* \*

Alkool-edari geiago zurruputzen da errialde aberatsetan. Baita tabakoa *erre* ere.

Luxenburgo da, Europa barruan, jan-edanean geien gastatzen duena, edo orrela zan beintzat 1960'garren urtean: pertsona bakoitzak, urtean 312 dolar. Bada zerbait, ezta?

Garai artan, Grezia'n, Espaiña'n eta Portugal'en pertsona bakoitzak batez beste 108 dolar gastatzen zitun.

\* \* \*

Tabakotan gastatzen dana ere, ezta nun-nai berdiña, toki batetik bestera naikoa diferentzi dago-ta. Portugal'en, esaterako, 3,30 dolar, eta Ingalaterra'n, 60,80.

Europa'ko lurraldeetan gorantzago ta alkool-edarrietan ere gastu geiago dakusgu. 1960'garren urtea gogoan eukirik, Portugal'en era ontako gastuak pertsonako 6

dolar izan ziran; Ingalaterra'n, ordea, 65 dolar.

\* \* \*

Lur-bizkar zar ontan bizi geranok urdaillerako zer naiien degun, argi dago. Laterri edo nazio bakoitzak atze luzea du sukalde gaietan, eta aldia igaro arren, ezta geienik gezurtzen urtez urte iritxi duen ospe ta aitormen ori.

Sueziarrak, adibidez, ba-liteke Europa'n danik eta mai bete-osoena eukitea. Ta zailantzarik gabe, guztien artean errazoizko, osasuntsu ta egokiena daukate. Lurralde ontako erdi ta batez-bestekoak, aragi, arrai, gurin ta esnari buruz alan ere, askozaz eramaten diote besteai. Zintzur-betetzaile galantak baitira.

Inglesak, dinamarkarrak, suizarrak eta noruegarrak ere jan-neurri polita zaitzen dute. Eskandinabiarrak, berriz, askotariko janarrietan irabazten die besteai.

Prantsesak, Europa'ko beste edozein errialdekoak baiño aragi ta barazki geiago jaten dute.

Beljikarrak eta alemanak dira patata ta lursagarrik geien jaten dutenak. Eta gerkarren, italiarren, espaiñarren eta portugaldarren jatekoak dituzu, Europa bazter guztietan, abere-proteinaz urri ta eskasena.

\* \* \*

Europa'ko erosketa saskiak —ondo da-  
kite etxeo andrak— gorabera miresgarriak  
izan ditu azken urteotan.

Janari batzuk, ogia ta aleak adibidez,  
urtu egin zaizkula esan dezakegu, edo biziki  
gutxitu bederen; beste guztiak, ordea, al-  
datu egin zaizkigu eurrez, eta oraintsu arte  
lujuzko ta aundikien jatekotzat geuzkanak,  
kanpotiko igaliak eta erbestetik ekarritako  
jaki ondu batzuk, eguneroko jan-neurrian  
sartu.

Munduan degun jateko erarik goxo ede-  
rrena amerikarrak erakusten digute, baiña  
zidor ontan Europa'k egin duen abiada ere  
txit nabarmena izan da azken urteotan.

# Lana

Jainkoak lan

**Asiera deritxon Liburu santuan oso po-  
liki azaltzen zaigu lanaren sortze ia jato-  
rria,**





Lendabizi, Jainkoak berak egokitu zion gizonari bere bizitegia. Ondo apain egokitu ere. Onela irakurtzen degu: «Jainkoak, lur-reko buztinez egiñiko gizonari, bizirako arnasa ixuri zion, eta gizona bizidun egin zan» (As., 2, 5).

Aurretik —ez dakigu noiztik— lur gainean etzan basalarrik, ez belarrik landetan; lurriña bakarrik igotzen zan lurretik, lur-azal guztia busti ta garastuaz. Lurriña bakarrik, miiloika urte asko aurretik.

Gizona zan Jaunarentzat izakirik ederrena, Berak maiteen zuena. Onentzat baratz zoragarri bat atondu zuen. Onela dio, berriz ere: «Ordurako Jainko Jaunak baratz bat Berak landututa zeukan, Eden'en sortalderuntz» (As., 2, 8).

Ortaz, Jainkoak gizona egin ordurako, lan egin zuen ortu eáer aretan, eia ondoren, gizona sortu zuenean, onentzat, amak seaska bezela, edotariko gauz ederrez apaindu zuen. Baratz aren apaindura azalduaz, onela darrai: «Eta Jainko Jaunak, edotariko zugatzak ernerazi zitun, begi-betegarri ta ao-gozagarri» (As., 2, 9). Etzan noski gauza eskasa izango Jainkoak ienengo gizonari ipiñi zion bizitegia.

Azkenez, amak aur jaiio berriarekin egin duena egin zuen gizonarekin: «Jainko Jaunak, gizona artu ta Eden'go baratzean ipiñi zuen» (As., 2, 15).

Gzionak lan

Zertarako jarri ote zuen baratz artan?

Alperkerfan egoteko ote? Ezin iñoiaz ere. Toki eder aretan Jainkoak berak lan egin ba'zuen aurretik, gizonari ere eginkizun berbera eman zion. Jainkoak lur-lantzeari ta gauzak egiteari utzi zion, aurrerantzean arazo artan nor ari izana zeukalako. Adan an zertarako jarri zuen guri adierazteko, onela bukatzen du Liburu santuak: «Areak ua landu ta zaitu zezan» (As., 2, 15).

Beraz, len Jainkoak berak oso ederki landatuta zeukan baratza, arrezkeroan gizonak landu, landatu ts zaitu bear zuen. Ez al dezu iñoiz ikusi, aita zarrak zer egiten duen, bere seme gaztearekin? Goiz eder batean, bere etxaguntza bikaiña, ditur guztiak erakusten dizkio, ta au diotsa: «Or dezu, seme, nik oraiñarte eraman dedan lurra. Ni zarra nauzu onezkero. Aurrerantzean, zerorrek landu ta zaitu, zerorren gauza ta ondasun bezela».

Egiz esan dezakegu: Jainkoak erakutsi zion, baiña agindu ere, gizonari lana. Soro ta landa egitekoa batez ere; Palestina'ko iur-azaíean bizi izateko, nai ta ezkoa baitzun.

Gizona nekazari

Bai, Jainkoak berak erakutsi zion nola lurra erabiili. Noiz erakutsi zionik ez dakigu, aia ere.

Lur-ipui zoragarri bat dakarkigute Liburu santuak. Onela dio: «Jar belarria ta entzun nere abotsa; zaudete zur eta aditu nere itza: Goldelaria goldean ari ote da beti, ereiteko

lurra urratuz ta arrotuz? Lur-azala berdindu ondoren, ez ote du sugillarra ereiten edo kumiña zabaltzen, edo-ta garia naiz garagara ta oloa bakoitza bere tokian? Jainkoak eskolatzen du, nola egin erakutsirik. Sugillarra ezta, ba, larrañean legaz xeatzen, ezta gurpilla ezta kumin gainean jira-biran erabiltzen; sugillarren azia makillaz joka aletzen da, kumiñaren azia berriz zigorka. Ta garia, eio egiten ote da? Ez, legaz apurtzen da, baiña azkeneraiño birrindu barik; gari-aleak lertu ez daitezken eran. Ori ere Jainko indartsuagandik dator; bere asmoetan arrigarri ta jakituriz aberatsa da-ta» (Is., 28, 23-29).

Nekazaritzatik arturiko ipui eder ontan, Isaias Igarleak, Israeldar erriarekin Jainkoak nolako ardura duen adierazi nai digu. Jainkoa ezta egundo ere itsuki ari; bere erri aukeratua ezta Ark nolanai zigorkatzen, une bakoitzak eskatzen duenez gauzak eratu baizik. Nekazari gisa, orain lurra lantzen du, azia erein gero; ta, atenez, alea jo ta garbitu, zori ta zernola guztiak eskatzen diotenez.

Lur-langilleak ba-daki ordu ta une bakoitzean zeri kateatu bearra daukon. Nola, baiña? Jainkoak berak erakutsita; jakituri ori Arengandik artua du: «Jainkoak eskolatzen du, nola egin erakutsirik». Jaunak zuzentzen ditu egunak, urteak eta kondaira, istoria bera ere bai. Ta ba-daki momentu bakoitzari ondo datorkiona.

Uste au ezta Jainko-erriarena bakarrik; gerkarrak eta erromarrak ere iritzi berdiña

zuten. Bergili'k, bere Alor-kantetan, onela diño: «Jainkoen aitak berberak nai izan zuen nekazarien lanak zaillak izatea. Berak lenengoz lurrak arteziz irauli zituen giza-biotzetan kezka zorrotzuz, bere erreñua lo astun baten azpian zurruntzen utzi gabe. Jobe'ren aurretik, lugin batek ere etzuen lurrik landu» (Georg., I, 147).

#### Lan neketsua

Lana, ortik, ez da gauza txarra. Jaunak berak ere lan bait-dagi. Judutarrak etzioten Jesus'i lan egiten utzi nai. Gaixoak sendatu ta mirariak egiten zitulako, gaizki esaka ari ziran Aren kontra. Larunbata austen zuelako, noski. Bein Kristo'k, bere Aitak lan egiten zuen ezker, Berak ere lan egin bearra zeukala esanik, jardetsi zien: «Nere Aita orain ere ari da, ta Ni ere ari naiz» (Jon., 5, 17).

Ogetamar urtez beintzat lanari lotua bizi izan zan Kristo, bere etxean, Nazaret'en. Onela diosku Markos deunak. Arotzeri bat zeukan bere aita-ordeak, Jose doatsuak, eta Kristo'k ari laguntzen eman zituan bere gazte-urteak. Eskuak gailu ta babaz josiak zeuzkan noski, ezpaitzan geldit egotekoa. Origmatik «arotz- seme» deitzen zioten.

Lana, beste aldetik, neketsua degu, aldatz gora egiten zaiguna. Eberkeraz lana esateko erabilli oi diran itz batzuk, nekea, lazta-suna, zama esan nai dute, argi ta garbi.

Gaiztetsia danik, alere, ezin dezakegu esan. Aipaturiko Asiera liburuan, au dira-

kurgu: «Lurra iregatik gaiztetsia izango duk; nekearen nekez aterako duk artatik azkurria, jatekoa» (As., 3, 17). Gaiztetsia bada ere, **lurra** dezu, ez lana bera. Jainkoak, **baina, Berak** egiñiko ezer eztu gaiztosten, madarikatzen. Beraz, onek **au** esan nai **du**: lurra landu bearra daukagula, ta alere lurra nekez ta izerdiz bakarrik emango digula bear degun jatekoa.

Legeak ondoren lan-egunak **mugatzen** zituak; **au** da, sei egunean lan egin zitekean, baiña larunbatean ez, ezta jaietan ere: «Sei egun ditukezu lanerako; egin itzazu aietan zeure lan guztiak» (Irt., 20, 9).

Zer lan debekatzen ote zan egun oietan? Liburu santuetan ezta argi agiri.

Igotz



N  
a  
z  
a  
r  
e  
t  
  
N  
a  
z  
a  
r  
e  
t

Nazaret, birtute guztien baratz jori!  
Onein artean buru ta usaintsu, maitasun  
lorea! Ta maitasuna ez dabil norbere ona-  
ren billa, norbere aukera ta zorionaren bi-  
lla. Bestera: eder yako norbere burua uka-  
tzea, iñoren ona ta zorionagaitik. Or Naza-  
ret'en zer dakusgun: alkar arteko poza, zo-  
riona. Ta onek, iturriak ura lez, lanerako  
grina ta gooa emoten.

**Jose,** Maria ta Jesus

Jose doatsua, Maria bere emazteari ta  
Jesus bere semeordekoari zer jana irabaz-  
teko, lanari lotua dabil bere arotzerian.  
Oso arduratsu ikusten da, egunero egunero  
lanean, Jainko-Semea azi ta Aren ama zain-  
tzeko. Egiteko au beteten dau pozik, ez da-  
kigu zenbat urtetan; eta, azkenez, lan sa-  
ririk eskatzeke, eriotz-loan sartzen yatzu.

Maria, Jesus'entzat bizi da bakar-baka-  
rrik, eta bere senararentzat. Maratz eta  
bizkor, lili zuriaren pareko, beragaz bat  
aterpe berberean bizi diran bi orre in zorio-  
na billatzen dau, soil-soilki. Bere gogoa,  
bere lanak arei eskiñiak dira. Ez daiela eze-  
ren paltarik izan; etxetxo atan abegi ona,  
biotz beroa, arnas bizia euki daiela beti.  
Eztau beste pentsamenturik.

Eta Jesus'ek, zer? Gauza guztien Egille  
dala aztu ete? Orrela dirudi. Izakien men-  
deko ikusten da une ta momentu danetan:  
beti adi-adi, esanik txikiak artzen, zernai-  
tarako adeitsu ta gozo. Jose ta Maria'ren

guraririk kaskarrenak, 'oingoan artu ta egi-  
teko, beti gertu. Gazte zoliagorik!

**Gure** ispillu

Nazaret etxea ete da ispillu gure egune-  
ango bizimoduan? Angoen antzeko taiuz eta  
arduraz ete gabiltz, iguruan ditugunai beti  
lagundu ta poza emon bearrez?

Askotan au jazo oi yaku: aita, berekoia  
da-ta, iñok otseinduta bizi nairik ikusten  
dogu; morroi asko bere jira-biran. Lan ba-  
dagi be, bere apeta ta illargi-aldietarako,  
joku ta jolasetarako gorde oi dau lan-sari  
ta jornaletik zati galanta; ezta iñundik be  
arritzekoa, ama jokabide orren kontra ja-  
gitea, berari dagokion askatasuna ta poz-  
apurra gogorrean be iñoiz eskatuaz. Ortik  
arrotzen, jaboipuspulu antzera, ainbat za-  
laparta, eztabaida, irrun-arrun eta asarre.  
Ta arrezkero ez dira ago ta biotz bat, bako-  
txa bere aldetik ibilliz etenbako istillu abi  
baiño. Alkar aurkako tximistak lez, norbe-  
rekeri bik alkarri ekin dautsoe, sekulako  
sumendia sorturik. Eta era onetan, ezelako  
ganora barik, azi ta ezi daroez guraso as-  
kok euren seme-alabak.

Nazaret'eko familia etzan orrelakoa. A  
bai etxe baketsu! Jesus ogei ta amairu urte  
bizi izan zan lurrean, eta eurotatik ogeta-  
mar antxe, Nazaret'en, igaro ebazan Jose ta  
Maria'ren alboan. A bai esaneko!

Euskal etxaldea, beti eder. Baiña, bertan  
maitasuna errege danean, batez be!

# Lore-jokuak

*Aurteri, bagillaren 23'an, Larra'ko karmeldarren Lekarretxean, Karmen'go Amaren Iduria eleiz-oiTURAZ koroaizea dala-ta, Lore-Jokuak izango dira.*

*Ona emen gaiak, sariak eta baldintzak:*

## I. Itz neurtutan

Erderaz:

1) Berezko Lorea, Larra'ko komentu ta bertoko Andra Maria Koroatzeari, olerkariak naien dauan neurritz, egiñiko lanik ederrinari. Saria: 8.000 pezeta.

2) Koro-Larrosa, gizaldi ontan Larra'ko komentuan azi ta berton Karmen'go Amaren oiñetan profesia egin izan daben 2.800 karmeldar gazteri buruz, nai dan neurritan, idatziriko olerkirik bikaiñenari. Saria: 6.000.

Euskeraz:

1) Berezko Lorea, Larra'ko komentua ta Karmen'go Amaren Koroatzea gai dauala egiñiko neurtitzik biribillenari. Saria: 8.000.

2) Koro-Larrosa, erderaz lakoxe gaiezta, bertolarren tankeran osoturiko lanik ederrinari. Sari bi. Lenengoa: 4.000 pezeta, Bigarrena: 2.000 pezeta,

## II. ITZ LAUZ

1) Larra'ko Lekaidetxeak ixuri dauan zeru arnasa. (Erderaz ta euskeraz. Saria: 5.000 ta 5.000.

2) Larrea, Bizkai'ko kondairan. (Erderaz). Saria: 5.000.

3) Zornotza'ko baillera. (Erderaz). Saria: 5.000 pezeta.

4) Karmeldarrak euskal literaturan. (Erderaz ta euskeraz). Saria: 5.000 ta 5.000.

### BALDINTZAK:

1) Lanak beitez jatorrak, eta argitaratu bageak erderazko gaiak, erderaz, eta euskerazkoak, euskeraz idatzita. Makiñaz, tarte bika; ta, epaia garatiz emona izan daiten, idazle bakotzak bere lanaren ale bi bialduko ditte.

2) Lan bakotxari itz berezi baizuk jarri ondoren, estalki txiki baten barruan, egillearen izen-abizenak eta zuzenbidea daukazan txartellxo bat sartu; estalki ori itxi, ta lanarekin batean, estalki andiago baten barruan bialdu.

3) Lanak, Batzordeko Idazkariari bialduko yakoz; au da: Aita Onaindia. Amorebieta-Larrea. Bizkaia.

4) Lanak bialtzeke epea, aurtengo maiatzaren 31'an, arratsaldeko zortziretan amaituko da.

5) Maikoak emondako erabagia naitaez ontzat artzekoa izango da, ta saria lortu dabenai idazkiz, egunerokoz naiz irratiz iragarriko yake.

6) Maikoen eskuetan dago saria iragartea, gai bat sari barik itxi, sariak erdibitu naiz bigarten sari lez beste gai bati ezartea.

7) Saritu bako lanak egillearen eskuan geratzen dira; sarituak, barriz, Batzordearen eskuetan, beronek argitara emon dxigizan osorik naiz zatika.

# Lan gi lle ak

## EUROPA'N

Errentaz edo lanaren izerdiz bizi daiteke jentea, Europa'n naiz munduko beste edozein lekutan. Orain eun urte, Europa'n, asko ta asko errentaz bakarrik bizi izan ziran; **au** da, kapital edo domu biurturiko diru ta ondasunen mozkiñakaz; obeto oindiño: aurretiko guraso ta senidartekoak pilitu eutsezan diru ta ondasunen ekarriakaz.

Gaur ez dogu Europa'n ainbeste errentadun. Oso gitxitu dira alde guztietan. Gizarte erara osoan aurreratuta dagozan naziño batzuetan —Inglaterra'n eta Suezia'n— errentaduna zearo ostendu yaku. Bertoko beste leku batzuetan, ostera, erri atzeratuagoe-tan, naiko agiri dira oindiño.

An ta emen, lanari lotuago gabiltz gaur. Gizarteak gaur emon oi ditun sari ta indarrak atsegingarri yakuz, eta alderdi ortatik yatorkun pozak eraginda, lanari ekiteko adore ta bizitasun geiago erakutsi oi dogu.

Gaur egunean, gaiñera, bakotxaren ikasi, jakite ta trebetasunari be asko begiratzen yako. Orixegaitik, batxiller ikasten diarduan gazte batek amalau-amabost urtetik jakin leike zein dan bere barne-deia, bokaziñoa, ta bere gaitasun guztiai erantzunik, zein arlotan lan egin daikean bizitza zear. Izan be, bakotxak sortzetik dakarren joera ta egokitasunean umetatik jartea, guztiz gora ta inportantzi andikoa da.

Lan bardin samarra

Europa'n, orraitio, ezta beti ta toki guztietan lan-era bardiña izan. Laterri **batzuk** ba-dira, industri saillean esaterako, beste sailletan baiño lan geiago dagienak. Beste toki batzuetan dendun edo era bardin samarrean dabiltz, iru arlo oneitan beintzat: industri, nekazaritza ta ostantzeko zerbitzu ta morroi-arazoetan.

Gaur, egia esateko, Europa osoan be lan-giro bardin antzeko daukagu. Bearleku, pa-

brika, meatz-toki, miña, tailler, artu-emon, gobernuko zerbitzu, banka, osasun-arlo, aziketeta, eskubide-egintza, salerosketa ta ola**koak** dira gaurko gizonen lantegi berezi.

Eta jardunbide bakotzak bere giza-ere-  
dua asmau ta osotu **dau**. Naiz Bilbao'n,  
naiz Helsinki'n naiz Erroma'n Bankuan lan  
dagienak, an naiz emen, tipo ta eredu be-  
rezi batzuk **sortu** dabez, eta daukiez, eta  
gero ta estuago egiñik doaz.

Nekazaritza edo baserri-lana

Europa'n oindiño soloak eta landak **irun-**  
tsiten dabe esku-lanik geiena. Portugal'en,  
Grezia'n, Irlanda'n, Espaiña'n eta Finlan-  
di'an nekazaritziatik bizi diranak euneko  
**34'tik gora** doguz. **Bestera** da Beljika'n eta  
Luxenburgo'n; lurralde oneitan solo-lanetik  
bizi diranak euneko **10** edo, geien jota be,  
euneko **15** baiño eztira.

Iñoren gain lan egin

Nainun gaur jokabide aparteko bat ikus-  
ten dogu, **egunetik** egunera geiagotuz doa-  
**na: iñoren** gaiñ edo kontura ta pentzutan  
**lan** egitea.

Gitxituaz doaz nobere kasa ta erantzu-  
pean lan dagienak, naiz bearleku baten na-  
iz-eta beste **edozein** arlotan. Karrera bat  
ikasi dabenak be, **au** amaitzerakoan, enpre-  
**sa** ta alkarte andietan sartu oi yakuz, bere

ogibide zerbitzuz alkarte atako **besaeri** edo  
langille saillekoen artean egiñik.

Inglaterra'n, lanetik bizi diran artean eu-  
**neko** 7'ik bakar-bakarrik **lan** egiten dabe  
euren kontura. Sarkaldeko Alemani'n gei-  
**txoago** dira onakoak, euneko **13** edo. Baiña  
numeru **au** be, berez-berez, gitxituaz doa  
urtetik urtera.

Lanik eza

Langilleen artean aintxiña ezaguna zan  
**mamu** bat be **uxatu** dogu: lanik eza. **Gaur**,  
izan be, Europa'n beintzat lan-urritasunik  
ez dala esan gengike; onako kasu ta **larri-**  
**une** batzuetan izan ezik. **Ba-dira laterriak**,  
Dinamarka, Finlandia, Olanda, Prantzia, **Lu-**  
xenburgo, Islandia, Noruega, Suezia ta **Sui-**  
**za** baitik bat, lanik ezagaitik bear egiteke  
dagozanak euneko **1** edo gitxiago diranak.

Inglaterra'n neurri **au** goratxuago dala  
**esan** bear, euneko **2** inguru; eta ain **aurrera-**  
**tuta** ez dagozan ego aldeko lurraldeetan  
—Espaiña'n esaterako—, lan ezez edo on-  
dorenez **langilleak geldi** egon bearrak, noi-  
zik noizera beintzat, **neurri** andiagoak artu  
oi ditu.

Atzerabide au, baiña, ezta iñundik iñora  
obetu eziñekoa. Gizartean oartzen zan ez-  
bardintasun ori, euren lurra itxi ta erbeste-  
ratu diranakaz atondu ta garbitu **da**, naiz-ta  
ez ain egoki ta eroso. Esku-lanari dagokio-  
nez beintzat, Europa'ko bazter geienetan  
**orrela** egin da.

**Auzi** oni buruz, ba, gaurko **ecjoera** lengoa baiño obeagoa dogu. 1950'garren urtean, esaterako, **5** milloi **egozan Europa'n**, lan barik; **1962'an**, **3** milloi baiño etziran. **Gauza** arrigarriak jazo ziran, gaiñera, Alemani Alkartuan eta bere antxiñako uriburuan, Berlin'en, adibidez; Bonn'eko Erkalak, **1950-1962** bitartean, **lanik** eza asko **gitxitu** eban: 1.585.000'tik 142.000'ra. Eta esituriko Berlin'ek, lanik bakoen giza-zenbakia 289.000'tik 13.000'ra jasten ikusi eban.

Ekonomi-zeregiñeko obeagotze bizkor baten **frutu** arrigarriak ziran oneik.

Lana obetuaz

Lana premiñazkoa da. **Ta** gaurko Europa ontan be, lanari ekin bear dautsagu. Egia. Lan ori orraitio ezta, len lez, ito-itokoa, errez nasaiagoa baiño. Europa'ko langilleak, **1962'an**, **44** ordutan batez beste bear **egiten** eban.

Ekarri ta lan ugariko lurralde **batzuetan**, barriz, sindikatuak bultz eta indar egiten asi ziran, naikoa gogor, zenbaki ori gitxitu egien, **40** ordura bakarrik **eratsi** egien.

Baiña **irabazi** oneik, euren bidez, eztira goizetik gabera eskuratu daikezanak. Mailaz mailla ta pitinka lortu **bear** dira, lanaren ekarriari ta Estadu baktxaren aberas-tasunari, batera edo moduan beintzat, **begiratuaz**,

Lan sariak

Bearrari dagokion lan saria, **jaso ta ugar**ia da geienez. Eta, gaiñera, urtetik urtera ugariagotuak dira pixkaka, sindikatuen eta lantegietako nagusien aihar aitze onari eskerrak; oneik eztabe nai, ba, an edo emen sari, jornal obea artzen dabela-ta, langille-rik onenak iges **egin** dagioenik.

Beren-beregiko **langille ta** enparauen **ar**teko diferentzia be joan da apurka apurka. Italia'n, esaterako, industrian lan egiten beargin bereziak, ortarako ikasi **ta** gertatuak —erderaz, espezializaduak— **1938'an**, olako gertakuntzarik bako langille soillak baiño euneko **54** **geiago** artzen eban. Gaur, ostera, diferentzi **au** moztu ta laburtu **egin** da, euneko **25** lez.

Opor-aldiak

Europa'n orain nok eztau bere **opor** aldia artzen? Amabost **egun** edo illabeteko baka-zioak, edonok daukaz. **Eta** langilleen bizitzan onek **daukan gora ta** inportantzia ezin daikegu ixildu. Igande ta jaietako atsedena Estaduko legeak eurak agindu ta **jagoten** dabe. Baita urte barruan be ba-da beste epe bat, epe ori zenbat eguneraiño **luzatu** bear dan legeak esan ez **arren**, Laterriak agindu ta indar-azten dauana.

**Epe** au, lenengotan, aste bikoa izan zan. Olantxe **Europa'**ko erri industritsu askotan;



gaur iru aste dira atsedentzat, bakaziñotzat emon oi diranak. Prantzia'n, alan be, lan-tegi ta pabrika askotako beargiñak urtean lau asteko oporraldiak daukiez. Baita gure artean be, Banku, **Suaro** ta olako batzuetan.

A. A.



# LANA TA OTOITZA

**Betania'**ko neba-arrebak

Aizta ezkongai bi, Marta ta Mari, Lazaro euren neba bakarragaz bizi ziran Betania'ko etxetxoan.

Aizta biok gauza ezbarðiñak adierazten dauskuez: lana ta otoitza. Au da: gorputza ta arimea.

Marta, etxeko andra dala esan daikegu, ta eguneroko zeregiñak zeatz egiten daki-zana da. Etxea, barru ta kanpo, garbi-garbi dauko beti. Kanpotarren bat ba-datorkioe, aster gertauko dautsoe ari be mai oparotsua.

Mari, oster, otoitz zale da; munduko gauzak ez dautsoe ardura andirik emoten.

Orduak eta orduak igaroko leukez Jesus'en alboan, Maixuari adi-adi, Aren ezpanetatik jausitako berbak entzuten.

Birtute ezbaridiñak doguz arena ta onena; arek lan, onek otoitz. Ederrak, ziñez, onoi-men bi oneik; baiña, alkar arturik, lan dagienean. Betania'ko etxetxoan ez eben, antza, alkar ondo artuten. Marta ta Mari ezbaridiñak *z'iran* euren izakeretan; ori zalata, bein baiño sarriago, agertu izan zan an betondo illuna. Aizta biak, lana ta otoitza, obeto banandu izan ba'eben! Ebanjelioak argi agertzen ditu, euren utsakin, aizta bien birtute biok.

Jesus, sarri joan oi yaken etxera, Nazaret itxi ebanetik batez be. Jerusalem'dik ur samar, Jeriko'rako bidean dago Betania. Etxe au ondo etorkon Jesus'i, atsedean pizkat artzeko. Bein, ustekabeen agertu yaken arren, aizta biak pozik artu eben euren; txeratsu agurtu ostean, Marta, janaria be gertau bear ebala-ta, bere arazoetara egin zan. Mari, oster, Jesus'en ondoan jarri zan kukulumuxu; poz-eztitan egoan Maixuaz izketaldi gozoan.

Bazkal ordua ba etorrela-ta, artega ebillen Marta: gauzak gordin samar eukozan oindiño. Bere barruan esan be, bai: baiña zetan dago nire aizta ainbat denporan, niri laguntzera etorri barik? Alako baten badiñotsa Jesus'i: «Jauna: begira nire aizta; zeregin asko daukat eta bakam'k itxi nau; datorrela, esaiozu, niri laguntzera».

Gogortxoak ziran Marta'ren itzok, eta Jesus'en aurka be ba-joiazan zelan baten. Go-

zoro erantzuten dautso Jesus'ek: «Marta, Martal, zoliegi zabiltz ainbeste ar.azotan. Gauza bat dozu, alan be, bearrezkoa; ta, egia esan, Mari'k saillik onena aukeratu dau, ta etxako kenduko» (Luk., 10, 41-42).

Batzuk uste izan dabenez, Jesus'ek esandako itzok eztira aitu bear lanaren aurka-koak lez. Jesus'ek -Marta'ri ez diñotso ezer lanagaitik, ardura geiegigaitik baiño. Lana ta otoitza alkarturik, batera, ibilli bear dabela esan nai izan eutson.

Eta pentsamentu auxa da, ain zuzen, Paul VI'garrenak bere «Errien Aurrerakuntzan» gogora dakarskuna. Gaur egunean lurreko gizonen eta emakumeen arteko egikizunetan, Marta'k, Mari'k baiño jarraitzaille geiago ditula. Baiña lan egitea ez dala naikoa, otoitz be egin bear dogula. Lana ta otoitza alkartu, geure izate osoari —gorputz eta arimari— berea emon dagiogun.

### Lan egin

Lana batzuentzat bakarrik dala, uste dabe askok. Oker dagoz. Guztiontzat da lana: Jainko Egilleak orrela erabagi eban.

Izaki guztiak dagie lan, euren erara. Ori leporatu dautse Egilleak. Birjili'k, Erroma'ko olerkaririk andienak, erleak dagien lan ederra gogoratzen dausku. Begiratu erleto-ki batera. Ikusi al dozuez iñoiz erleak lanean? Mamurru txiki orrein lan egin bearra! Arein artean ez dago alperrik, danak dagie lan, bakotxak bere lan berezian: lo-

raen autsa miazkatu ta erpatxo artean eka-  
rri, ezti aziak irazi, gelatxoak osotu, aba-  
raskak atondu ta azkenez ezti gorriaz bete.  
Bizi bizi azaltzen dau olerkariak erleen lan  
au: «Fervet opus»; ango lan jorana! Jain-  
koak ipiñitako legea beteten dabe.

Gizonak be, izaki bizien arteko danez, lan  
egin bearra dau berezko legeari berea emo-  
teko. Ta onez gaiñera, gizonari, Egillearen  
aurka jagi zalako, au dirautso: «Zeure be-  
kokiko izerdiaz jango dozu». Auxe da Jaun-  
goikoaren legea, gizon guztiok bete bear  
doguna. Beraz, lanari ekin bear dautsagu  
tramankulu bat esku artean erabilteko gau-  
za gareanetik gexoaldiak eta zartzaroak in-  
darrak makaldu ta deuseztu arte. Kutxak  
diruz beterik daukezan aberatsak, sakelak  
utsi daukezan pobreak, jauregi ederretan  
oial bigunez inguratuta munduratu diran  
umeak, txabola zar baten jairo diranak, sen-  
doak eta makalak, jakintsuak eta ezjakiñak,  
gazteak eta urteetan aurreratuak..., guztiok  
geure izerdiz irabazi bear dogu eguneroko  
ogia. Lege au guztiena da; origaitik mundu  
guztiko gizonak lan egin bear dabe..., lan  
fabrikan, lan etxean, lan soloan, lan basoan,  
lan itxasoan, lan lur azpian... Lan oiñatzak  
itxi bear toki guztietan.

Liburu santuak onela: «Egaztia egazera-  
ko lez, gizona lanerako». Ego-makal, zeru  
zear ibilteko gauza ezta txoria? Arek gal-  
du dau izakera berezia, ta errukarri dogu.  
Lanik ez dagian gizonak be bere ardatz eta  
izakeratik urtenda dabillega esan gengike;  
Jaunaren legea ezta beteten. Ingurukoai

ikasbide ona emoten saiatuko ete gara gi-  
zonok? Zer, ba? Besteak lan, ta gu geldi?  
Gizon!, eztozu au zuzen jokatzea. Izadiko  
indar guztiak lan ba'dagie, ta geienak gizo-  
naren onerako, zegaitik zu alperkerian?  
Munduak azkenengo urteotan aurrerapen  
andiak izan ditu, ta gure anaiak, munduari  
aurrerapena ta zoriona ekarteko bideak za-  
baltzen, eten bako lanean dabiltean bitar-  
tean, zu ezer egin barik.

Otoitz egin

Lana ta otoitza, urrezko korapoloz lotu-  
ta, ona emen gizonaren egiazko bidezta. Bai,  
gizonak lanaren ostean, bear-bearrezkoa  
dau otoitza be. Izaki guztiak dagie otoitz,  
bakotxak bere erara. Gaudi ta kosmos oso-  
ak Jauna goratzen diardu, bere misteriozko  
kantu ta izkuntzaz. Eta gizona, antzezko  
kantua Egilleari zuzendu barik? Elitzake  
egoki. Ez, Jaunak ez eban ortarako Ludiko  
errege egin; ori, txori-malo izatea litzake,  
ta Jainkoak ezta gura txori-malorik giza-  
semeen artean, goiz ta arrasti kantaldi zo-  
lia eskintzen dautsoen txori-talde bizkorra  
baiño.

Danok dogu otoitzaren bearra, premiña.  
Ume batek, laguntasuna nai dau; baita gexo  
batek, eskeko batek be. Gu, Jainkoaren  
aurrean, ume gara, gexo, eskeko; ezin dogu  
ezertxo geurez egin, iñoren laguntasuna  
bear. Eta goiko laguntasuna geuganatzeko,  
otoitza dogu bide bakarra. Kristok onan:

«Eskatu egizue ta emongo yatzue; zabiltze billa ta aurkituko dozue; jo egizue atea ta edegiko yatzue» (Mat., 7,7). Eta Berberak be, guri irakasteko, otoitz egin eban: mendian sarri, gabaz, Lazaro berbiztu ebanean, azken Aparian...

Otoitza, izan be, erbeste ontan gabiltzala naitaetzkoa ta guztiz ona yaku gizaseme guztioi. Geure argalkeri ta ganorarik eza dalata, makiña bat ezbear jausi oi dira, gure gain, goizetik gabera! Nok argi egin ta eskua emona ez ba'geunke, zoritxarrekoak gintzakez oso. Otoitza, beraz, poz-iturri, indar-barriztaille yaku bizitz oiñazetan, nekeatsekabetan. Arazo au, ezta, ez, batzuk diñoen lez, ume-jolasa, bizitzeak berak eskatzen dauskuna baiño.

Otoitza lana da, gogo lana. Ta gorputzeko lanari be indartsu laguntzen dautso. Klostok'ek iñoan: «Otoitz dagianak, iñok baiño lan geiago dagi, ta obeto». Eta Vitor Hugo'k: «Otoitzean ari dana eztago alperkerian; gurutzetutako besoak lan dagie, baita batuta dagozan eskuak eta zeruruntz jasotako begiak be». Eta Donoso Cortés'ek: «Otoi dagienak, nire eritxiz, gudariak baiño be mesede geiago egiten dabe munduaren alde; ta, mundua txarto ba'dabil, guda ta gerrak, otoitzak baiño geiago diralako da». Flanklin jaunak, 1787'garrean, Batzar nagusian: «Otoitz egin daigun, jaunak. Asko ikusia naz, eta urteak aurrera doazala, auxe ikusi dot batez be: Jainkoak zuzenduta doazala gizonen arazo guztiak».

Oso onurakor yaku, gaiñera. Lacordaire Aitak: «Otoitza da grazi sorburu ta oiñarri. Grazi iturriaz batuten gaitu, au da, Jaungoikoaz; gure arimea goi-argiz orniduten da, ta Gogo Deuna beragan bizi da. Guk, gizonok, bizitza osoa geugan izateko, otoitzari ekin bear dautsagu.

Gaurko mundua, zergaitik dabil kilikokaka? Begi gitxi gorantza jasoten dalako; otoitz ixillean, esku ta beso gitxi alkartzen diralako. Jainkoa falta yako gaurko munduari, ta utsune au, otoitzez Jainkoa ekarazoaz bakar-bakarrik beteko dogu. Munduak gaur, aituko al dau otoitzaren bearri-zana! Otoitz-bidea artu ezpa-dagi, gero ta beerago sakonduko yaku leizan.

Lan eta otoitz. Mundua onez aterateko aizta bi.

Goiria

Lur-ikarak

Urtean, batez beste, berrogetamar milla lur-ikara izaten dira.

Jentea, baiña, olako andi batzuetan izan ezik, ezta oartu be egiten.

# Gosea munduan

Gosea zer dan

Gose naz! Zer adierazo nai ete dogu itz onegaz? Erriak sarri nasiuak emoten **dauskuz** beronen adierazpen bi beintzat. Jan-gogoa ta gosea ez dira bardin, itz bion guneraíño sartu ezkeru.

Gosea **au** dozu: jateko leia, gurari bizia; urdaillean nabaitzen dan olako makaltasuna, ezin-egon edo miña. Gaitz-ezaugarriok, **aurrez ikusi ta bideak arturik**, bear dan jatekca artuaz **uxatu** leikez, eta ortarako alegiñ guztiak egin oi doguz.

Jan-gogoa, barriz, jaterakoan bertan aurretiaz gozartzea lez dozu, jatekoen usaiñak,



gozoak eta itxureak eraginda. Jan-gura naiz gogoia etorri leikezu ondo jan ostean be.

Bigarren onek ez dauko zer-ikusirik gaur munduan oartzen dogun gosez; jangale izanik be, zer janik ez ba'daukagu, ezin gorputzik indartu. Ta bizi izateko gorputza zuzpertz ta adoretu bear, bestelan gero ta aulago eriotzara doakigu-ta.

Gosea, munduko gatxa

Gosea, ezjakiña, eriotza ta onako gatxak len, an atsedentegian, etzitun gizonak. Beronen len-gaiztakeriaren ondorenak, frutuak ditugu oneik. Arrezkero, millaka ta millaka gizaldietan olan izan da munduan, eta olan izango be beste millaka urte askotan, gizasemea lur gaiñeko biztanle dan bitartean.

Betidanik lez? Ez dakigu. Jainkoak ez eban gizona gosez maskartu ta indar bage bizi izateko egin. Au gizonaren beraren ezjakiñak, zuzenik-ezak eta kaskarkeriak sartua dogu. Ta antxiña-antxiñarik. Ortaz, ba, gosea gizadiaren aspaldiko zigorra da. Ta berau ezin astindurik, amaika burruka egin izan da. Bai sorkaldean bai sarkaldean, emen naiz an, orixe erakusten dauskue inunduko edesti ta istoriak. Ez, munduan eztozu izan, egundo be, urrezko garairik, gizona gose barik bizi izateko seguraniza eskiñi dauskunik. Bizi garean istori-puntu onetan be, angoak eta emengoak alkarri lagunduz erriak ainbat aurreratu arren, len-

goan aurkitzen gara: gosearen zigorpeán. Bai, gaur be, gosearen mezulari illunak, bella zar antzera, kua-kua egiten dausku itxura txarreko.

Errialde gitxi dira premiña ta estualdi barrik. Afrika'n, Asia'n eta Ego-Amérika'n batez be, erri asko dagoz, giza-munduaren erdia ta geiago eurak osotuagaitik, janaritan, ez bear beste, ez bear bestekoa ez daukie-nak.

Gauza gatxa da, egia esan nai ba'dogu, buru-auste onei matasa askatu ta gauzak artez eratzea. Arpegikera guztietatik begiratu bear geunke arlo au, bere ertzak oro zeoro arakatu; au da: lanagaz irabazi geiago euki-íeko bideak billatu, egunez egun geiago saldu, munduko Estaduen artean diran saldu naiz erosi egiteko eragozpenak eratsi; nekazari ta baserritarren bizimodua irabazpide errezagoan ipiñi. Eta geiago, ta geiago...

Urte gitxi batzuk dirala sortua dogu ONU'k erri arterako daukan FAO deritxon erakundea, janaritza ta nekazaritza erretzu ta obetzeko jarria noski. Gosearen aurkako kimetz gaztea. Alkarte ori zoli be zoli dabilkigu, bere elburua jaritxi nairik, munduko gobernuai bear daben argia ta laguntza eskiñiaz. Indarrak indar ortan arazotu arren, ezbaridiñak eta neurri bakoak izan dira ortik sorturiko ondorenak. Eta ekarri txiki ta jan-eskas orren gerrikoa ausi ta apurizeko —ezta ezpairik—, indarketa arri-garri baten eragiña bearko da nunbait. Auzi onek, alan be, izan daike bere amai obariz betea.

Gosearen betartea

**Gisa** askotariko itxura ta ortzak ditu **goseak**. Goserik ezagunena, alperkeria dozu, ezer egiteke, geldirik egotea. Guzurra iduritzen ba'yatzu be, alaxe da: alper asko daukazu munduan. Eta emen ez da itzultzerik, ez jagoterik, ez aldakuntarik. Argazki izugarriak erakutsi daroaskuz goseak: azur ta narru bat-egiñik bizi diran gizakiak legezko pixuaren erdia ez daukienak; bakotxaren sasoari ta gorputz-erari dagokion erdia be **jaten** ez dabenak.

Legorte gogorrek ezagutzen dira lurralde batzuetan —Afrika'n, Asia'n, Txile'n eta Mexiko'n, esate batez—. Beste toki batzuetan, ainbeste basamortu izan ezta be, **uiol** andiak ezagutzen dira, urtean urtean bertako solo, lur-zati, zelai ta basoak ondatu ta trilla **egiñik** izten dabezanak. Izurri biok —euri larregiak eta sikete biziak— gosea erein oi dabe bazterrik bazter; luzerorakoa, bein baiño geiagotan.

Goseak ba-dau bigarren arpegi bat, ain ezagun izan ezta be, kaltegarria oso; **gaur** be zabal dakusguna ta galpen **atidiak** egiten dabezana; gose **ixil** ta **iraunkorra**, osagatxa, gizonak munduan irutik bik sentiduten dabena. Zein ete? Gose maltzur **au** zein dan, zelakoa ta nundikoa dan ulertzeko, zer askotan sakondu bearra **dago**. Alan be, biologi-zeaztasun batzuk gogora ekarri ta bizi dan makiña bategaz bardindu daigun giza-soiña. Bizi dan edo dabillen **makiña** batek, artutako indarraren neurritz lan egitekotan,

besteengandik **diferentzi auxe** dauko: bere korapillo ta ozka-zatia indarra emon eta oneik barriztatzea, **erre** ta gastetan dauan **reti** neurrikoa izango dala.

**Begira** giza-soiña. **Emen** daukazu **gizona**ren gorputzak, arturiko janariaren bitartez jaritxi leiken azitze ta bardiñean egotea. Mirari andia, ziurki. Giza-soiñean, gorputzak bizi izateko **bear** dituan ela ta molekulak barriztu egin bearra dago; ta, ori egin al izateko, **gun** eta sustantzi aparteko **batzuk** emon bear dautsaguz gorputzari, janaria emokeran. Eta, ain zuzen, bein edo askotan naitaezkoak diran sustantziok palta izatea, orixe **dogu** gose **ixil** ta iraunkorra dakarskuna.

Zertik yatorkun gosea

Ura lez iturritik yatorku gosea. **Ta** taiu ortako iturririk ba-da munduan. Lurretik bakar-bakarrik ez dator gosea, ezta diru ta ondasun banaketa ez-bardiñetik be. **Zigor au** geienik gizarte arazoa dogu; politika ta kultura aldetik datorkiguna da **gaur** munduak sentidutzen dauan gosea. Urterik urte biziagotuz doana, atan be.

Alde ikaragarria dago pertsona ikasiagaz edo ikasi bakoagaz lan egiten **danean**. **Ikasi** ta jakiñezagaz ba'zabiltz, naiz **tailer** baten naiz scloan, esku arteko bearra zaillago yatzu ta gosea bera be astunago egiten. Onetarako Juan XXIM'garrenak bere «Ama ta Irakasle» deritxon idazki ederrean **diñosku-**

na ontzat artu ta, an dakazan egi biribillak eustazpi ta oiñarritzat jorik, geure egiteko ta egiñak aragitu bear gendukez.

Baita, Paul VI'garrenak «Errien Aurrera-kuntzann dakazanak astiro irakurri ta ausnartu be. Guztiona da lurra, ta gizarteko guztiok daukagu eskubidea bertan zer-edozer geure lez eukiteko; erri eukitsuak gitxi daukienai lagundu bear dautse; emon ta artu, guztiok zerbait izan bear dogu; Estadu indartsuak ez dabe beeko edo makalik zapaldu ta barregarri erabilli bear; jakituriz ta teknikaz alkarrri eskua eskiñi bear dautsagu, guztiok anai garean ezkerro. Gizonari egoki ta ederrago yakon mundu bat osotzen danok dogu lan egin bearra.

Oñarriok gogora ekarriaz lanari ekingo ba'geunskio, ainbeste mixeri, gose ta negar ez geunke gaur baztarretan izango.

Bakea egiteko, gosea uxatu

Itz, bai, sarri egin oi dogu bakeari buruz. Bakea, bakea! Aspertu barik darabilgu miin puntan. Bildur gara, urrean, ain begiko dogun bakea galduko ete dogun. Ta berau zaindu ta jagoteko, nok ez dagiz alegiñak? Baiña gogora ekarten al da, bear bestean beintzat, bakeari eusteko gosea dogula areriorik andiena? Errialde asko gorritu dira matxiñada ta erreboluziño; andia ziñez Errusi'k orain berrogetamar urte izan ebana, ta gosea izan zan, aren lenengo txin-

partak atera ebazana. Geroago, Txína'ko komunistak, goseak zirikatuta, urten ziran garraile.

Urdaiila utsik, gose-korronka, ezta tresna ona erriaren eskuetan. Esan oi dogu: «Goseak dau aginpidea». Gose mamuari geugandik alde eragiteko, lan egin daroagy; baita gerra zelaian burrukan be. Bakea da, azken eskabidez, benetako aurrerapenaren elburu. Eta ozrion. Eta nekez eukiko dogu egiazko zibilizaziñorik Kristo'k erakutsi euskuna bete ezik, au da: «Maite izan egizu, zeure burua lez, urko laguna». Ta urko laguna gaur, mundu zabal csoan be, bata-bes-tekandik urrin-urren ta bitarteak guztiz laburrak dira-ta, edozein gizaseme dogu.

Gaur, aupada bi jaurtzen dauskuez, beiñola gure erri zaintzalleak mendi tontoretik lez: gure fedearen kontra da bata; gure adimenaren kontra, bestea. Gure fedearen kontra, Jainkoak zer guztien ardura daula esaten dogulako. Jainkoaren maitasuna siñiskai ba'yaku, izan be, gizon bakotxak munduan dauan deia ontzat artzen ba'dogu arek eta onek, bakotxak bere neurrian, bere arazo ta gauzai emon bear dautsen indarrean usterik baldin ba'dogu: Jaungoikoaren ardura orrek zelan kondenatu leikez gizakiak, jaiotzatik ara ondenatu be, zigor geldi, astun batera?

Era ontan garrasi dagie jskitun batzuk, jaiotz-arau ta azterketari buruzko zabalku-neetan. Aurretik erdizka lez ikusi ta iragarri oi dira olako gauza ezezkorrak, bizitzaren Jaubeak bere izaki bakotxari jateko ta




jazteko lain emon dautsela ta gizona, ain zuzen, eskas samar itxi daula-ta. Baiña gizonak beste izakiak eztaben bearkizuna dau: lan egin bearra. Ta alkarri lagunduta egin be.

Mundu alkartu bat eratzeko bidean gabiltz. Ta alkartasun ori guztion alegiñez azkeneraiño eroan bear dogu. Ona emen beste aupada, gure adimenaren kontra doana. Goiak azpiratu naiean gabiltzan garai ontan, ez ete gara gauza umetxoai, lurra emokor egiten, bear aiña janari esku-lanez irabazten, erakusteko? Dirurik bada, baita teknikurik be; ba al dogu, baiña, gogo onik? Esku-zabaltasunik, ete daukagu?

Juan XXIII'garrenak bere enziklika ederrean: «Kristau izena daroenetatik ezin daike iñor be aldi-eraketak obeagotzeko lan egin barik geratu, eta au, gizonaren nor-izateari dautsagun lotsagaitik, eta onaren zabaltzeari eragozpenen bat jarten dautsoen zer guztiak baztertu bear ditugulako».

Nik eta zuk, urliak eta sandiak ba-dakigu, ba, zelan jokatu auzi ontan, mundu obe-tze ontan. Bakotxak bere are-pikorra jarriaz. Maitasun eguzkitan alkarri eskua luzatu ta lanean lagunduaz.

Igotz



# JABE- TASUNA

«Gizaseme bako txak jabetasunaren esku-  
biderik ete?


Itaun oneri baietz erantzun bear. Jaun-  
goikoak Itun Zarrean eta Barrian, eta Elei-  
zak be auxe irakatsi dausku. «Neurea»,  
«zeurea», «geurea» itzak oso gozoro dara-  
bilguz; geure izateari jagokozala dirudi.

Jaungoikoa gauza guztien egille ta jabe  
da. Lurbira onetako izaki guztien buru ta  
errege lez gizona jarri eban, danak bere  
menpean euki ta bere onerako erabilteko,  
norbera barriz oso-osoan Jaungoikoarena  
izateko. Ondo jatorku egi au argiago ikus-  
teko Itun Zar eta Barriko ta Eleiz Amaren  
irakatsi batzuk gogoratzea.

I. ITUN ZARRA.—Lenen-lenengotik giza-  
semeak euren gauzen jabe zirala dakusgu.  
Kain eta Abel euren oparigaien jabe ziran,  
ara ta ona ibilli ebizenak be eurenak ebezan

abereak; luzerotxo egozala tokien baten,  
laster kalpar edo txabola edo teillapeen ja-  
be egiten ziran. Erri bat biotz-biotzez maite  
eban Jaungoikoak: Israeldar erria, Abran  
eta onen ondorengoak, Isaaken belaunetik  
etozanak. Onei ezta ta esnea dariozan lu-  
rraldea emon eutsen. Norberen munarriz  
izentauta egozan. Munarri oneik ixillean  
edo azpikeriz aldatzea galazota euken. Zaz-  
pigarren eta amargarren aginduak ostutea  
ta iñorenik gura izatea debekatuten eutsen.  
Iñorenagaz oker jabetu ta norberena be zu-  
zenbakokeriz eralgiten ebenai ikaragarritzko  
zigorrez astinduko ebazala iragarrita euken.  
Norbere jabetasun au, gauza batzuetan,  
tronkaleko ondasunetan batez be, ezin al-  
datu eikien. Jubileo urtean, barrien barriz  
enengo jabearen eskuetara etozan ondasun  
oneik.

II. ITUN BARRIA.—Jesus'ek aberasta-  
sun larregiak eta munduko gauzetan biotz-  
buruak josita eukitea ez ebazan ontzat euki.  
Bakotxa bereen jabe ízan bear dauala ar-  
giro erakutsi ta irakatsi euskun. Sendi gu-  
rena beretxuen jabe izan zanf Nazaret'er.,  
Egipto'n eta. «Ezeukiak beti eukiko dozuez»  
iñotsen bere ikasleai. Ikasletarako eukitsue-  
nak be ez ebazan beragandu, guztiak baiña  
zerbaiten jabe ziran: sare, txalupa ta abar.  
Eukitsu batzuk adiskide ebazan, biotz zaba-  
lekoak eurak: Niodemus, Arimatea'ko Jose,  
Lazaro'ren sendia. Lapur batzuk ondu ta  
eskuzabal egin ebazan: Mateo, Zakeo ta.  
Lenengo kristiñauak euren ondasunetatik  
dana edo zati bat apostolui ekarten eutsen



Mundua Jainkoak egiña da,  
gizonarentzako bizitoki batez  
be. Gizonak, barriz, munduan  
eleiz ederrak egin dauz, Jau-  
nari bere biotz-leialtasuna era-  
kusteko.

ezeukien lagungarri. Ananias eta bere emazte Safira ez ebazan zigortu Jaungoikoak gixti edo asko ekarri ebelako, guzurra esan ebelako baiño. Esku lanaz eguneroko ogia irabazten eban Paulo'k.

III. ELEIZ AMA.—Eleiz Amak bere Irasle ta Maixuaren irakatsiak bete bear.

Bakotxaren jabetasuna dala-ta oker aundiak izan diralako, Eleizeak be geroago ta argiago ta zeatzago irakasten dasku egi au. XIII'n Leon Aita Santuagandik asita batez be alegintsu dabiz gai onetan. Ona emen XXIII'n Juan eta VI'n Paulo'ren irakatsi batzuk.

Lengo Aita Santuak «Lurrean Bakea» deritxon enziklikan onela diño: «Jaungoikoak iragarritako egiz gizasemearen aunditasuna ezagutu gura ba'dogu, ezin ikusi barik geratu aunditasun ori eztala edozelakoa, gorengeetakoa baiño. Izan be, gizasemeak Jesukristo'ren odolez berrerosiak dira, goieskarrez Jaungoikoaren seme ta adiskide, betiko gentza, zeruaren jaurgo dira. Gizasemearen eskubidetzaz itz eginbearrez, auxe esan bearrean naukazue: gizasemeak bizitzaren eskubidea dauala, soiñaren osotasunarena, era berean bizibideari eutsiteko bear dauazan tramankulu edo lagungarriena be bai: onen artean onetarikoak dagoz: janari, soiñeko, etxe, atsedeen, medikuen etorrerak ta abar». Eta onan gizona gizon izan, agertu, zaindu ta gizon lez iraun daiten zeren eskubidea daukan irakatsiaz, biotz ez-titsuz, errukitsuz eta zabal-zabalez Joan Aita Santuak jarraitzen dau.

Lenago be «Ama ta Irakasle» deritxon kartan beste ainbeste irakatsi euskun: «Bakotxak berea eukiteko eskubidea dauko...; eskubide au Estaduak ezin leikio kendu».

Onetan eta beste askotan maitekero, urduri ta zeatz darakuskuz VI'n Paulo'k. Adi irakurri «Errien Aurrerakuntzan —22'n— diñauskuna:

«Jainkoak egiñak guztiontzat».—Bete lurra ta menperatu: Idazteunak lenengo orrialdetik, egindako guztiak gizonarentzat dirala darakusku. Gizonak bere indar adimentsuz eta bere lanez baliotsuago ta ederrago egin bear dau lurra, zelan edo alan esateko, bere menpeko ipiñiaz. Lur au bakotxari bizitzeko bear dauanak, ta bere aurrerakuntzarako tresnak eskuratzeko egiña bada, edozein gizonak, bearrezko dauana bertan aurkitzeko eskubidea dauko. Oindiño barri dogun Batzarrak gogoratu dau: «Lurra ta beronek dauanak gizon guztientzat eta erri guztientzat egin dauz Jainkoak, olan be, egindako guztiak zuzentasunez guztiekana zabaldu bear dabe, goimaitasunetik banatu ezin dan zuzentasun-arauek diñoanez». Beste eskubide guztiak, diranak dirala, ondasunetzazko dogun jaubetasuna, ta askatasunez sal-erosketarako doguna aztu barik, lengoaren menpeko dira: eztabe ba oztopo izan bear, euren elburua errezagotuteko baiño. Ta sozial eginbear astuna gero-ko ezin itxia da, len izan eben euren elburura ekartea».

D. Agirre, karmeldarra

# ERRI-ONDASUNAK ZERTARAKO?

Guztien onerako dira errien ondasunak, Eleizak erakusten duanez. Guztien ona, ordea, era askotara artu leike, ta berak ez du artzen beltzak edo komunistak, ezta nazional-sozialismoak bezela ere. Gizonei bere balore guzien azkera oso aerreztutzen dien gizarte-aukera guzi bat baiño (Mater et Magistra, 65). Orregaitik, ba, ezin lezake gizonak edo gizarteak, beren ondasunekin nai dutena egin. Erromatarrak erakutsi ta ain ezurretaraiño sartutako usu et abusu ezkutu erazi bear da.

Nola irazi, ordea, erri-ondasunak guztien onerako? Lenen-lenen erri barrenean bertan dituzte naiko zer egin. Ez ordea, beartsuak, danak aberats izan ez leikiela ta orrela gelditzera ekiturik, aberatsak berriz eskupekkoa emanda dana egiña dagola uste izanez. Au lenagoko etorpide baten garaian gertatu zitzakena, besterik ez da. Ondasun auk, beartasuna eragitez menperatzen, erabiltzekoak dira. Diruketak kargutan ezarriaz, lan egin dezaketen danei irabazpidea eutsi ta errezturik, agintariak kargu ezarri auk ondo artu ta laguntzen dituztela.

Alegiñak egin bear dira, langilleak ez bakarrik, erabilliaz balioa bereala galtzen dituzten gauzen: radio, telebisio, auto ta orre-


akoen jabe izan ditezzen, beren balioa denbora luzeagoko duan zerbaiteren jabe izan ditezzen baiño: lantegian artukizuna, etxea ta orrelakoen jabe, alegia.

Erri-ondasunak bakoitzari al duan lain ikasteko aukera eman bear lioke, orrela gizartean berari dagokion bizibidea aurkitu dezan. Bere lanetik bizi diranentzat gizarte ziurtasuna, lanik ezin egin ditekenei berriz laguntza opa bear diete.

Batzarrak zionez gaurko ekonomi-galde aundiena ar,gitze azkarra bear duana gaiñera, ezberdintasun-galdea degu, ez erri aberats eta beartsuen artekoa bakarrik, baita erri barrenean alde batetik besterakoa ere. Ezberdintasun auk egoki erabatu erazten saiatu bear litzake, erri ondasun aukin.

Ondasun auk bear bezela erabiltzen ez diranean, berrizteak dira bearbearrekoak. Batzarrak egin zuan berrizte auen gain itz, kontu aundi xamarrakin ordea. Gotzain asko bai dira lur berrizte auk naikoa moldatu ez eta bear bezelako zuzenpenik gabe eraturakoak ziralako ziario zoritxarrez bukatzen ikusi bear izan dituztenak. Orrek ez du esan nai, ordea, berrizterik ez dala asi ere egin bear,

Kabo ixillak naiko ez diranean eta aberatsak explotatu ezin lezaketen edo nai ez luketen ondasunak baldin ba dituzte, ta orrela bear bezela ez erabillirik «erriari dakarkizkion kalteengaitik, edo erri ondasunak ortik artzen duten okerragaitik ondasunak batzuen eskutan egoteak guztien *ona* galerazten dutenean, guztien onagaitik batzuetan ondasunak jabeari kendu ditezke (Populorum Progressio, 24). Aspalditik erakusten du, ordea, Eleizak doktriña au azke-



neko urteetan. Argi ta garbien batzarrean (Gaudium et **spes**, 71 ). Gauz auek, ordea, oso nastuak dira, ta ez edozeiñek nai duan bezela erabakitzeakoak. Komunismoan ikusi dezakegu, bear bezelakoa ez dan erabaki auetako bat.

Batzutan baliteke atzerrian zer egiñik izatea, erri-ondasun auekin. Ezin liteke ordea bakarren onagaitik, erriaren laguntzaz eta lanez egindako ondasunak, aberriari egiten zaion kalteari begiratu gabe, aberastasan auek atzerrira bialdu. Erri barrenean bertan zenbat egin bear dagoan ikusi degu. Badute erri aberatsak erri beartsuei bere ondasunekin al duten lain lagundu bearra, orrela bere buruari laguntzeko lain izan ditezten.

Ez dituzte erri agintariak ere erri-ondasunak bere burua aberastutzeko erabilli bear. Oso txalotzekoak dira erri ondasunen *kontu* ematen duten agintariak. Aინbeste erri dira agintariak zenbat irabazten duten jakin dezaketen erriak... Bere zergakin zer egiten dan, zuzen onez jakin nai luke beti erriak.

Itz bitan esateko, lurreko ondasunak dira, gizona lurrean berari dagokion eran bizirik, betiko bizitza irixten lagundu dizaioten,

A. Borda

## KONTRATUEN ZUZENTASUNA ERRIEN ARTEAN

ERRIEN AURRERAKUNTZA enziklikak atal eder au dakarsku: «Leo XIII-ak «Rerum Novarum»'ean irakatsia, gaurkoa be bada: Aiderdien baietza, egoera ezbardiñegietan emona bada, ezta naiko kontratua zuzen egiña dala baietzeko; aske emondako baietzaren lege-araua izadi eskubidearen eskabideen menpeko da. Bakotxaren lan-sari zuzenari buruz egia zana, erri-arteko kontratuei buruz be egia da. Alkarren trukeko ekonomi bat, norgeiagoka aske baten, legearen gaiñean bakarrik ezin daiteke oiñarritu. Sarriegitan sortu-arazoten dau onek ekonomi-diktadura bat. Trukatze askea gizarte zuzentzaren eskabideai dagoanean da zuzena bakarrik».

Kontratua da idearik goienena atal onetan. Zer da, ba kontratua? Itaun au dedigorekoa da lantxo onen asikeran. Atoan mamiñera eltzeko, moralista andi biren erantzuna dakart itaun orrentzat. «El contrato

es un negocio jurídico bilateral que tiene por objeto establecer o cambiar una situación de derecho», diñosku Haring'nek (1).

Ta zalba'k «...Conventio mutua qua unus vel plures mutuo se obligant erga unum vel plures alios, ad aliquid dandum faciendum vel omittendum» (2).

Lenengo pertsona bi bear dira kontratu ori egiteko. Ta pertsona bat izan bear daua-la, alde bakotxetik, kontratu ori egiten doana esanagaz, beste guztiak sobra dagoz. Itz bigaz esateko, pertsona azke ta bere buruaren jabea izan bear dau. Ta onekaz, baietza, legietan aginduta dagon eran, emoten dauana.

Kontratuen gaia edozein izan leiteke, baiña beti gizona edo Estadia jabe danen arteko bat, nai gauza bat izan nai deretxo bat. Ostantzean kito, kontratu orrek bape eztau balio. Onek danok euki ezker, deretxo positiboaren menpean jausten dan gai bat bada, kontratu ori deretxo orrek agintzen dauan eran egiña izan bear dau.

Baiña esku artean darabilgun enziklika atal onek, naziño arteko kontratuen zuzentasuna erakusteko, lan-sari kontratuaren eredia dakar. Ta ez ejemplu bat lez, egi bat eta bardiñaren aplikaziño barri bat lez baiño. Egi ori auxe da: gizonak eta naziñoak gizon-arauz ta patxadaz bizitzeko sari ta bideen deretxoa daukie. Deretxo ori

(1) *La ley de Crislo*, 2'garren idaztia. Barcelona, Herder, 1965. 4'gn. argitalpena, 458 ovr.

(2) *Theologiae Moralis Compendium*, l'go idaztian, 1.088'gn. orr. Madrid, BAC, 1958.

etxatoroko gizonari kontratu bat egin dau-lako, gizona dalako ta gizona dan ezkeretik baiño. Obeto esateko, kontratu ori langillearen eta gizonaren deretxoagaz neurtu bear da, ta ez gizonaren ta langillearen deretxoak kontratu bategaz egin, deretxo orrek gizonak kontratua egin baiño ariñago daukozalako. Orregaitik kontratu baten bitartez, gizon batek, deretxoz toketan yakon baiño gitxiago artzen badau, ostu egiten dausie, ta bere deretxo bat zapaldu. Olan egindako kontratu batek, edo eztau balio, edo legeak ontzat artzen badabe, langilleak eta eclozein gizonek bere deretxoak eutsiteko era euki bear dau. Ta ezpadauko era ori, artu, odola ixuri barik ta indarkeri txarrik barik. Ta onek eginda, zor yakona ordaintzen ezpadausie, berak bere eskuz artu leike. Onek idea jeneral batzuk baiño eztira, ondo neurtu bear diranak; baiña oingorako naikoa dira.

Gaur daukagun gizartean, auxe gertatzen da leku askotan. Gizonik geienak eztaukie ondasunik bizitzeko laiñ. Ta nonon zuzendu bear dabez ondasunok. Orduan beste gizon askok situaziño ori euren onurarako aprobetxetan dabe. Gizonak bizitzeko eraren billa doazanean bidarte onetan arkitzen dira: edo agintzen dausien kontratuari baietza emon diru apur bat batzeko (bizitzeko bakarrik, ez gizon-arauz bizitzeko); edo ezetza emon ta bape irabazi barik gelditu. Indartsuak eta ondasun asko daukozanak, bere ondasunak geitzeko, bere indarragaz txikiak zapaldu ta ostiko artean da-

biltz, olako kontratuari baietza emon ezkerro. Ta auxe da Leo XIII-ak gaiztetsiten dauan kontratua (3), txikien makaltasuna indartsuak, gizonaren deretxoak zapalduta, bere onurarako lerdakatzen daualako. Ezbardintasuna dago olako kontratuan, eta ezbardintasun orren bitartez, andiak txikia iruntsi egiten dau.

Au esku artian darabilgun atal onen lenengo zatia da. Baiña bigarren zatian, Paul VI-ak egi oneik naziñoen arteko ekonomi truketara, daroaz. Ta ondo emona oinkada ori, gizon batek daukozan deretxoak, gizon askok be bardiñ-bardiñ daukiezalako. Naziñoa, gizon pillo bat baiño ezta. Gaiñera gizon baten deretxoak zapaltzen ba'dabez ludi ontako baztarren baten, beste gizon guztien deretxo bardiñak be arriskuan dagoz, deretxoen zentzuna galtzen dalako.

Gizonen artean dagon problema ori, naziñoen artean be badago. Naziño batek bere aberastasunaren bitartez beste naziño pobre bateri kontratu bat artuazo egin leikeo. Kontratu ori txarra izan arren, naziño pobre orrentzat. Begitu zer gertatzen dan Ego-Ameriketan. Naziño orreik euren ondasunak atara ta saltzeko dirua bear dabe. Eurak, eztaukie. Badoaz Goi-Amerikakoak ta dirua emoten dausie. Baiña diru ori emoteko kontratuan Ego-Amerikatarren askatasuna lotuta geldiken da. Diru orren trukez Ego-Amerikatako naziño baktzak

(3) *Acta Leonis XIII*. Erroma'n, Batikano'ko irarkolan, 1892, 129-131 orr.



bere jeneroak Goi-Amerikari **saldu** bear dautsoz. **Ta** aurrerantzerako bear dabezan makiña **ta** tresnak, Goi-Amerikan erosi bear dabez. **Ta** beste naziñoen batek kontratu obea **ta** inbersiño obeak emoten ba'dautsiez, Goi-Amerikatarrak galazo egiten dautsie.

**Auxe** da bigarren atalean Aita Santuak txartzat **artzen** dauana. Andienak bere **in-**darraren bitartez, txikiena irunsi egiten daualako **ta** bere deretxoak zapaldu. **Argi** diño enziklikak: «**Trukatze** askea gizarte-zuzentzaren eskabideai lotua dagoanean da zuzena bakarrik».

Ostantzean zer gertatzen da? **Esku** artean darabilgun atal onetan irakurri doguna: «Sarriegitan sortu-erazoten dau onek **eko-**nomi diktadura bat». Beste berba batzukaz esanda, **gizon** gitxiren eskuetan edo **naziño** baten eskuetan beste naziño bateko gizon askoren bizi bideak dagozala. **Ta** bereztik, **gitxi** askoren **jabe** izatea, ezta gauza txarra, baiña geienetan jabetasun orren bitartez beste **gizon** askoren deretxoak zapaldu egiten dabez. Mundu zabalera begitu **ta** ikustea **baiño** eztago. **Naziño** batzuk euren aberastasunaren bitartez beste naziño batzuei askatasuna kendu egiten dautsie. Olako kontratuak ezin leitekez ontzat artu, alkarren trukeko ekonomiaren legeak ondo betearren, ekonomi legeen ganetik gizonen deretxoak dagozalako. **Ta** ekonomia gizona-**rentzaí** da, ez gizona ekonomiarentzat.

Aita Santuaren dei indartsua baiño ezta «**Populorum progressio**». La nozonoz, bein-

tzat, **kasu** egiten ba'dautsogu. **Atal** onetan **ta** enziklika osoan diñozanak, gizadiaren onerako dira.

Etxebarria'tar J. M.

Neskak egia?

Neskatxak: Egia, epaikari jaun, ez dot nik, auzi orretan, ezer ikustekorik.

Epaikariak: **Ta** bitartean, paperean diran argitasun eta zeaztasunak, or dituzu zure kontra, lekuko: «gaztea, polita, ule oria, begi **alai** **ta** begitarte zoragarria...»

Neskatxak: Bai, autortu bear dot, epaikari jaun, neu naz.

# MAITASUNA

## GIZARTE-AUZIAREN ARDATZA

AAundu au arteztu eziñik gabiz. Makala indartuteko ta gaxoa osatuteko, bidezko jaken osaki edo beste zerbait erabilli bear. Gizasemeok, bakarrik nai besteakaz alkartuta, ondo ta zoriontsu bizi izateko, maitasuna bear. Zuzentasuna be ezin baztertu geinke XI'n Pio'k diñauskunez, baiña: «Zuzentasuna bakarrik, al bait zeatzen beteta be, ezta naikoa gizartea aztertuteko; asarreak, burrukeak kenduko dira, baiña biotzak eztira alkartuko ta asmoak batera ekarri be ez»,

«Jaungoikoa maitasuna da ta maitasunean datzana Jaungoikoagan datza», diño Paul Santuak. Agindurik aundiena auxe dogu, izan be. «Jaungoikoa maiteen izango dozu» esan eutson Jesus'ek legegizonari. Ta onen ondoren gaiñeratu eutson: «bigarren agindua be onen antzekoa dozu: urkolaguna be zeure burua lez maite izango dozu». Urkolagunaganako maitasun au beste edozer opari baiño maiteago jako Jaungoikoari.

Urkolagun au nor dan eta zelan maitatu bear dogun, al bait argien irakasten alegindu zan Jesus, Samaritarrak bide ertzean apurrak sakel-utsik eta burutik orpoeta-raiño aurkitu eban, zauritutakoagaz egin


ebana edestuaz, «Egin, zeuk be, beste ainbeste», diñausku guztioi.

Kontu guztien kontua ta erabagi guztien erabagia azkeneko epaian izango dogu. Bizitz onetako artu-emon guztiak urkolagunaganako euki dogun maitasunaz neurtuko dauz oso zuzena danak. Jesus'ek, eskumako alderdian eukiko dauazanai esango dautse: «Zatoze, Aitaren onetsiok, asieratik zuontzako gerturik daukan zeruko erreñuaren jabe izatera». Gose nintzan... egarri... billosik... gaxorik... espetxean...

Ezkerrekoai be esango dautse: «Alde nigandik, madarikatuok, betiko surtara...»

Batzuk eta bestetzuk itaun bardiña egingo dautse Jesus'i: «Noz, baiña, ikusi zaitugu gosez, egarriz, billosik...?» — «Onetariko anaitxoan bateri egin dautsezuenean, neroni egin daustazue. Egin eztozuenean, neugaitik be eztozue egin».

Jesus'ek egitez eta berbaz beti erakusten ebana, azkeneko egunetan gogotsuago ta argiago irakatsi euskula esan geinke. Azkenaparian ikasleai oiñak garbitzen dautsez, eta diñotse: «Nik, zuen Jaun eta Irakasle izanda, oiñak garbitu ba'dautzuedaz, zuek be bata besteari oiñak garbitu bear dautsezue». «Azkeneko agindua damotzuet: alkar maite egizuela neronek maite zaituedanez. Onetan neure ikasleak zarela ezagutuko zaitue: alkarganako maitasunean». Aita Jaungoikoari daskatso: «Bere ikasleak ta Beragan siñistuko eben guztiak, arren be arren, Bera ta Aita bat ziran lez, bat izan eitezala».



Gizonok, sarri, gude ta istillu alkar alu ezinik gabilzan bitartean, ona izadia, balzuetan aberats, elkor beste balzuetan, Jainko-maitasunaren esaugarri, beti.

Jesus'en ikasleak ondo ikasi eben urkola-gunaganako maitasuna bear-bearrezkoa zala, egiazko kristiñau, berarizko jarraitzaille izateko. Lenengo kristiñauak, ondasunak batu ta bearrizana euken artean bananduten ebezan. Euren maitasuna ikusirik, siñiste bakoak be ago betean esaten eben: «Begira zenbateraiño alkar maite daben». «Maite eztauana ilda datza» diño Juan Jesus'en kutunak. Beronek darrai: «Dakusana maite ezpadagi, eztakusan Jaungoikoa zelan maite leike? Jaungoikoa maite dauanak, maite bei urkolaguna be».

Orain zetan gara? India'ko jakitun batek esaten eban: «Kristiñau geienak kristiñautasun erdia baiño eztabe ezagutzen. Jaungoikoa ta Kristo gauza bat dirala, bai dakie: Kristo Jaungoiko da. Baiña Kristo gizona danik eta gizon jarraituko dauanik, eztira konturatzen». «Banka Mundial»-ko buru dan George VVoods'ek diñoan au be kontuan eukitekoa da: «Mundu au ezin zorionsua izan erdia aseturik eta beste erdia gosez egonda».

Kristo'ren jarraitzaille dan Eleiz Amak bere Maixuaren irakatsiakaz daragoio. Azkeneko Aita Santuak eta Batikano'ko II Batzar Nagusiak ezin egokiago jakuzan irakatsiak damoskuez arlo onetarako. Azkenez oraingo Aita Santu VI'n Paulo'k «Errien Aurrerakuntza» deritxon enziklika'n labur, oso, egoki ta argi diardu.

Irakatsi oneik, apurren batzuk baiño ezpadira be, gogoratu daiguzan.

Batikano'ko II Batzar Nagusiak auxe diñausku: «Lurra ta beronek dauazanak gizon guztientzako egin dauz Jaungoikoak; olan be, egindako guztiak zuzentasunez guztia-kana zabaldu bear dira, goimaitasunetik banandu ezin dan zuzentasun-arauak diñoanez» (**Gaudium et Spes**, 69).

VI'n Paulo'k, Santiago ta Anbortsi Santuen irakatsiak gogoraturik diñausku: «Batonbatek lur onetako ondasunak badauz, eta bere anaia bearrizanean ikusita, bere erraiak isten ba'dautsoz, olakoagan Jaungoiko-maitasunak zelan irauñ leike?» «Ez da zure ondasunen zatia txiñroari damotsazuna; emoten dautsazun ori berea dau. Guztiak erabilteko emona izan danaz jaubetzen zara. Lurra, mundu guztiarentzat emona izan da, ez aberatsentzat bakarrik» (Erri Aurrerakun, 23).

Zelan lan egin bear dan be argi diñausku VI'n Paulo'k: «Gizonak gizona aurkitu bear dau, erriak alkarregaz anai-arreba lez. Jaungoiko semeak lez alkar aurkitu bear dabe. Alkarregazko ulertze ta adiskidetasun onetan, alkartasun zerutar onetan era berean ekintza asi bear dogu, gizadi osoaren etorkizuna batera egiteko» (Ibid., 43). «Eginbear au lenen ta bein, ondasunik geien artu dabenai jagoke. Giza-maitasunean eta izadi-gaiñekoan sustraituta dagoz euren eginbearrok, eta iru itxurapean agertzen dira: alkarri lagundu bearra, erri eukitsuek aurrerabidean doazan erriei emon bear dautsen laguntzan; gizarte-zuzentasuna eginbearra, erri indartsu ta makalen arteko sal-

erosketako artu-emon okerrak zuzen-duten; guztiekaz goimaitasunez jokabearra, guztiontzat, gizonari egokiago jakon mundu bat egiñaz, mundu onetan emoteko ta artzeko zerbait guztiek izan dagien. Batzuen aurrerakuntza, besteen aurrerakuntzarako eragozpena izan ez daiten. Arazo au, ondoren audikoa da, munduko zibilizaziño-aren etorkizuna beronen pentzuen dago egon be-ta» (Sbid., 44).

«Au da egin bear dana: gizon guztiak, edozein enda, erlejiño ta aberrikoak, gizonari osoan dagokion bizitza egingo leukean mundua; gizonen aldetik, eta oindiño bear dan bestean menperatu eztan izaditik jator-kuzan loturetatik askatuta; askatasun itza, itz utsa izango eztan mundua, Lazaro beartsua ta aberatsa mai batean jarteko lako-xea» (ibid., 47).

**Domingo Agirre, Karmeldarra**



Maitasun bako gíznicaren imcsia ez ete?

# ERRI

## ATZERATUAK

Ez, ez joan urrunegi. Emen bertan be ba dogu ezjakiñik. **Begi** biak zabaldu ta ikusi. **Or gure** erriak eta **gure uri** andietako auzotegiak, «uritar barriak» bizi yakuzan bazterrak. Atzo baserritar ziranak, **gaur** uritar eginda. Begira, bai, pizkat, askorik ez gero! Azal samarretik! Kulturarik ete dabe? Ezta, arean **bez!** Aurrerapenaren maillarik **be** erengoan daukazuz oindiño. Ezta egia?

Baiña, etzaite arritu olakoen aurrean. Guztizko gaitza ete da? **Ez** dakigu. **Guk** dakiguna **auxe** da: **gure** artean beintzat, **lur** retetik bizi diranak oso atzera dagozala **oindiñokarren**, kultura bidean. Eta, **gaiñera**, kasu batzuk kendu ezkeru, ez **dozu** euren artean **bizitza** obetzeko egokitasun andirik idoro al izango. Ain dagoz atzera! Ain dabe aurrerapide **gitxi!** **Ez** eskolarik, ez aukerako tresnarik...

Oraintsu **egiñiko** azterketa batek diñoskunez, **España'ko** solo-beargiñen arteko kultura ezta, ez, baikor eta itxaropentsua be. Eurotatik euneko **0,12** bakarrik artzen dabe goi-maillako Irakaskintza; euneko 0,25'ek, Erdikoa; euneko **84,50'ek**, **Len**-maillakoa; euneko 15,00, barriz, ezelango ikasketa ta estudixo barik geratzen dira.

**Euskal** errietan, zori onez, ikasteari emon dautsoe askok eta askok. Ederto **egiña!** **Bai**, zer askotan oindiño atzera samar gabiltzala be, ikas-gaietan eredugarri gareala esan bear. **Gure** baserritarrak, **naiz-eta** eskola ta ikasketak ordaintzeko askotan **gorriak ikusi** bear izan, ez dautse ezeri parkatzen euren seme-alabak **aurrera** ateratzeko. Onetan **gure** txalorik bizi ta beroenak merezi dabez. **Bai**, **orrelaxe** da! **Orain** eta beti, jakitetik yatorku aurrerapena. **Ez** izan dudarik!

Beste zenbaki orreik, alan be, lazgarriak diranik **ezin** daikegu ezpaian ipiñi. **Ta** **egia** bere billoistasun osoan **ikustera** egiteke dagozanak, ba-leiteke, eurok ikustean, edo entzutean, bizkarrak goratu ta aizearen txistua ba'litz lez gauzok entzutea. Mesedegarri izango litzakioe **olakoai** erri atzeratu orreitara ostera bat **egiñik**, jazoten danaren **gordintasun** betea euren begiz **jasoko** ba'lebe.

Batzuk diño: «**TV gaur bazter** guztietara sartu **yaku**. **Ta** erraldoi **pausuz goaz** aurrera ta aurrera. Tresna orrein obariak, ez al **doguz** ikusten? **Ez** dagoz, **ez**, ain atzera!». **Onan** diño, bai, ta nasai arnas artu daroe gizaki baikorrok, dana larrosa kolorez **ikusi** o! dabenok. Eta orregaz, zer? Euren naieza,

txepelkeri, gogo aula ta itxitasuna erakutsi. Besierik ez!

Baiña, ez dagiogun geure buruari ziririk sartu. Ba al dakizu egalper edo abestruzak, eiztariak urreratzean, zer dagian? Arein zaratarik ez entzutearren, arean edo lurrean sartu oi dau bere mutur-puntea; ta orrela bere burua zaindurik dagoala uste dautzu. Ez daigun guk gisa ortan jokatu.

Kolorezko idurien bitartez artzen daben kultura bañu ori ezta zer andirik, gizona landu ta buruz jazteko. Beste aldetik, sorreri ta lo-suma dakartse orreik ikusleen buru-almen ta indarra: gure telebixta, mutilla dogu orretan. Bestetik izpillu dizditsu be izan leikegu, ta sarri izan be ba-yaku; norbere lurraganako maite-sua otzitu ta, ikusitakoaren lilluraz beterik, uri nagusietarako bidea askok artzea jazo daitekena dogu-ta.

Auzí au alan edo olan askatu bear da. Zailla dirudian arren, ezta saiets itxi bear, askatu, atondu ta aurrera eroan baiño. Ta auzi-askatze **au**, ezta baktxaren bizibidea ta teknika aurrerapena indartzea bakarrik; orreía gizonmakiñak baiño ez geunkez eukiko, ta alderdi bietatik kalte egiñak nunit. Ez, zuzenean jo bear da, ta giza-barrua osorik astindu-azo; gorago miñez ipiñi, jaso ta **igon-eragin**, gizonaren izakera, adimena ta berezko joerak, au da, izate **osoa** goi-maillara ekarteko alegiñak egiñaz. Bein betiko baztertu bear da lur-langilleagazko eritxi negargarri **au**: **gizon** ezjakin, geldo ta argi laburrekoa dala uste izatea.

Jakituriz jantzi bear **da lur-langillea**. Ortarako, zergaitik ez dabe bere gauzetaz geiago idazten gure eguneroko ta **aldizkariak**? Zergaitik ez yakez **alkar-izketa** ta autualdiak eskintzen? Telebixtak berak, zergaitik eztau zirristu bat edegiten, solo-langille ta antzekoentzat bakarrik?

Onek emongo leuke, xee ta guri, jente ezjakiñok bear daben kultura ogia, al bait eta sarrien emon be. Ta, urte gitxiren buruan, erri buru-jantzi ta aurreratu baten jabe giñakez. Zerbait saiatzea, ez ete dau merezi?

Bizkargi

Esaera zarra

Gazteak ez jakiñez,  
zaarrak eziñez,  
egitekoak doaz  
gaizkigiñez.

# Eleiza gaurko mendean

«Gaitzetik zaitzeko baizik ez dirautzut, Aita; ez mundutik ateratzeko» (Jon, XVII, 15).

«Zeruko ta ludiko gauz danak berritu bear dira Kristo'gan» (Paul doneak, Eph., 1, 10).

«Eliza alkartasunezko gogozko batzar ikus-eziña, mundu guztiakin batera dijoa. Bere egin-bearra: munduko legamin eta gizartereko arnas izatea» (Batikano II).

«Elizak, izan bear duana izatera eldu nai ba'du, bere eskutik mundua libre utzi bear du: mundu-munduan, utsean, arkituko du bere nortasuna» (Ives M. Congar).

Gora-øera gogorrak ibilli ondoren, ara emen nun azaldu digun Erroma'ko Eliz-Batzar Nagusi edo konzilioak, bere iritzia. Kostatuta, baiño *eman* digu. Ez zan ez izan, erreza! Gaia ere alakoxe izan! Askok, danok, erne, bere zai egon gera. Azkenean, pozik batzuek eta ez ainbat besteak. Betikoa...!

Argi pixka bat emateko asmoan bialtzen dizuet oraingo nere jardun au. Baiña len-dabiziz esan bear dizuet, ez dirala nereak emengo gogoeta auek, Ives M. Congar'i artuak baizik.

Eta *sarrera* alde batera utzirik, arian sartu gaitazan.

## I) **Eliza** ta mundua

Antxiñakoa degu benetan gure mundua. Ez da ez atzoko euria. Millaka urteak botatzen dizkiete batzuek. Eta milloika botatzen dizkietenak ez dira gutxiago.

Eliza berriz, bai dala gaztea! Orain ogei gizaldikoa. Bularreko aurra dirudi mundu-agurearen ondoan.

Ara emen bi «egi» alkar bizi diranak, bata-besteia ezagutzeke. Eta ura arraiari bezela daude alkar lotuak. Nola alkar «ondo naasi»? galdera onek kilimatuta mintza zaigu Erroma'ko Batzarra.


\* \* \*

Bi izatasun edo egi ezberdiñak dirala esan bearrik ez det. Berez azaltzen zaigu.

Munduak, eginkizun bat du. Bere burua salba bear du, betikotasunezko Argi zurian sarturik.

Orrela ikusten ditugu gure egunetako gizonak beren buruari galdezka: «Ni zer nauk?» «Zer dek mundua neretzat?» Eta erantzun jator bat billatu eziñ galdera oiei... Orra Sartre, Kierkegard, Jaspers, eta ainbat eta ainbat...





Eleizeak, len ta orain,  
otoitz eta lan, Kris-  
to'ren arnasa bizia  
cmon l-ear dautso gí-  
zarteari.

## 2) Gizona

Egun batean gertatu zan. Okerkeria no-  
akoa zan etzekian gizon arek. Jakiteko bi-  
dea eskuan zeukan... Eta jakin zuan, bai.  
Adan zan bere izena. Ordutik daramakigu  
danok okerrerako akulu zorrotza. Lotuta  
geratu zan.

Au «Izan» aurretik, ba-Zan beste Bat,  
gauz guztiak ondo egin zituana... Baiño,  
gure Adan'ek zarbaildu zion gauz bat: gi-  
zadia.

Ain ongi zegon gure aita bigurrikeri au  
egin aurretik, ba Zorion aren egarri bizia  
geratu zitzaion bere baitan. Baiña loturik  
arkitzen zan... Askatu eziñeko korapilloa-  
gaz.

Orra or gure Jaunak ezarri zion egin-  
bearra: bereganatzeko egarri bizia. Baiña  
gizona pekatuaren morroe...

\* \* \*

Jaungoikoak, beti on, etzuan ez umezurtz  
utzi gizadia bere pekatuan. Gaiztakeriaren  
lokarriak ez-batuko zizkion bat bidali zion:  
bere Seme, Jaungoikoa. Bere eriotza izan  
degu gure uztarpearen salneurria.

Bereganatzeko bidea erosia, gure Bere  
egarriaren asean eskuratzeko.

## 3) Kristo

Kristok munduan egin bear bat bete  
zuan: bere eginkizunari, Berari, Bera ta

bere egipena bat bai-dira, iraupen bat  
eman. Eliza deitzen diogu bere egiketari.  
Kristo da bere buru.

Munduan Kristo sortu zan bezela, Elizak  
Kristo'gan sortu bear du mundua. Au da  
bere xede ta zeregiña.

Eliza degu beraz, Jaungoikoarekin, Kris-  
to'rekin, bat egiteko bidea. Gure azkena  
lortzeko daukagun sakramentu argia.

Bere eginkizuna ez da munduarena beze-  
lakoa. Baiña ez du arena baztertu bear,  
osatu baizik. «Betea» eman bear dio, lagun-  
aren eginkizuna beteaz,

\* \* \*

Ogei gizaldi Kristo zeruratu zitzaigula.  
Ogei gizaldi Eliza bere arloan ari dala. Bai-  
ña nola? Ez du Elizak okerreko pausorik  
eman. Aundua au-rrera dioa, orrela, bere  
izatez, joan bear danez. Baiño askotan gu  
izan gera berari begira geratu geranak. Eta  
ain urrutira iges egin zaigu. Eta danei, mun-  
du osoari, Eliza azaltzeko agindu gogorra  
gaiñean daukagu. Oso gutxik dakite Eliza-  
ren berri.

Baiña, Kristo munduarekin, munduan di-  
joa. Eta bere argi-izpiak ez dira itzaldu gizo-  
nen biotzetan. Guztiok daramazkigu. Zuri  
ta beltz. On ta gaizto...

## 4) Eliza munduan. Mundua Elizan

Munduak, bere eginkizun eta bere aurre-  
rapenagaz, Eliza bildu egiten du. Ta Elizak

bere baietza emana dauka munduaren egin-kizun orrei. Asko ikasi du, ta **geiago** ikasi bear du. Aberaski asko dauzka bere barruan munduak, eta aundiak oso, noski.

Elizak ere, ba-du beste egite bat. Bere azkena lortzen lagundu bear dio munduari: orretarako dauzka Kristok eman zizkion bide guztiak. Orrela, artu-emon sakon bat sortu bear da bien artean. Ezin daitezke bakoitza bere arloan uts-utsik iraun. Lotuak dira. Eta alkar-loturik jokatu bear dira. Eliza munduan dago. Elizak eta Kristok ere mundua lotu egiten dute. Bien artean mundua bilduta arkitzen da. Bere azkena, biak, bat-batean jaritxi bear dute.

Bi eginkizun: Munduarena ta Elizarena. Baiña batera jardiretsi bearrekoa. Au da Elizaren eginkizuna: batera bakoitzaren azkena lortzea. Bakoitzarena, baiña bien-tzat berdiña.

Munduak Kristo billatu, lortu bear du. Ta Kristok bera arkitzeko ipiñi zuan bide zuzena, Eliza da.

Eliza beraz bide bat da. Kristo'gan amaitzen da. Kristoren Jaungoikotasunean itozten da.

Mundua aurrera. Bere egarria nun ase

billu. Eliza, bere bidea. Kristo, bere egarriaren asegarri dan ur gozo betikoa.

Mundua: gure asiera.

Eliza: bidea.

Kristo: amaia.

## 5) Kristo **Alpha** ta Omega

Kristo degu noski bide berri baten asiera. Beregana, gure Azkenarengana daramakigun bidea, bere Eliza degu.

Kristo, gure Egille ta Erosgille da gure azkena. Danok beregana goaz. Munduaren gurari guztien betetze osoa. Gure biotzen betea. Jaungoikoak goraldtu ta zeru goienetaraiño jaso zuana, bere eskui-alderaiño.

Gure zai daukagu. Gu, egarriz beregana goaz. Bultzatuta utzi ginduna, gu noiz eldu zai daukagu ta artez, itsu askotan, beregana goaz.

Orixe eskuratu, geuretu, bear degu, Kristo. Ori egiñaz, gure egitea bete degu. Auxezion Jon'ek bere Apokalipsisko liburuan: «Bereala nator, eta nere saria batera, bakoitzari bere neurritz saria emateko. Ni naiz Alpha ta Omega, aurren eta azken, asiera ta amaia» (Apok., 22, 12-13).

Garmendia'tar Karmel

# Baserria eta uria

Lenago, solo ta landetatik bizi giñanean, mendi-egal ta ibai ertzetan etxetxo zapal zuriak jasoten ebezan gure aurretikoak. Be aldetik urrun samar izanik be, ez eutsen eurai ardurarik. Etxaldea nun jaso izanez-keru, ez eben beste buruko miñik.

Gaur ez, ezkara orrela. Gaur, urrin samar dagozan auzunetan, aukera andiz orniduta ezpa-dagoz beintzat, ez dautzu iñok bizi nai, Gure artean, zenbat baserri eder utsitu diran! Or daukaguz, ainbat, uso abi itxiak ez; iñor barik, sasiz josita, laster lurra joteko eran. Gizon, i bai azala aldakor!

\* . \*

Gaur, mundu guztian jazoten da: gurasoen baserria —euskal etxe misterioz betea gurean— itxi ta uriko zokondoetan gorde. Galazo eziña da jokabide au, Guztiok esku-bide osoa bai dogu gura dogun lekuan bizi izateko.

Noiz edo noiz damutuko gara, ta uritik kanpora egingo dogu. Toki askotan, orain-txe be, asiak dira kanpora urteten: P'aris'en, Londres'en, New York'en; baita Bilbao'n berton be. Osasun billa nunbait, urietako kirats larregia ezpaita ona,

Andik nai emendik begiratu, beraz, ezta *errez* auzia konpontzea.

Errialde bat —Espaiña'n gaur lez— industri krisisaz dabilenean, berez nabaitzen o'a baserri zaletasuna. Baiña landa griña au sarri olako zertzelada ta larriunetakoa baiño ezta izaten; bestelan, naiago dogu uri andietako nasaitasunean bizi.

Beste aldetik, egunerokoak be, urri nagusietakoak jakiña, ez dira geiegi aleginduten baserri bizitza bere duintasunean jarten; lan soillak, ezer ez diñoenak idatzi oi dabez. Eta askotan orrein lana, giro-arrotze ori, udako odei antzera pasa oi da, euri zaparrada pitiña egiñaz.

Ezta au,, uste dogunez, gogo txarretik sortutako landarea, baserriko gauzak uritik jagoten diralako baiño. Baserritarren Alkarteak dagien lana txalogarria izanik be, ez daukie oneik bear beste indar eta arte baserri-arazoak egokiro zaindu ta aurrera aterateko .

Gaur baserriai eutsi ta orretan itsuko lana egitea, uiol andiaren kontra uger egin naiez saiatzea lez yaku. Mundua aldatuaz doa, ta gurean iñon baiño geiago. Baserriari ezin gengikeo len lezeutsi. Beste bide batzuk artu bear dira: Alkarte ta kooperatibak, Suezia'n eta Noruega'n lez; lankai, tresna ta tramankulu barriak solo, landa ta zelaiok landu ta erabilteko; abere auke-

rakoak ekarri; piñu ta landarak obetu ta jagon.

Mundua aurrera ba'doa, zergaitik ez gure baserritarrak be? Euren bizitza ta lan-erak, ia, osoan, barriztu egin bear dira. Beso gixik lan asko egiteko moduan jarri. Esta-

duak be —zertako esan?— baserriak ez ditu zergaz ta kontribuziñoz astundu bear, alik geien lagundu baiño.

Gaurko jokabiderik egokiena taldeka, eki-poan, askok alkar arturik lan egitea da. Batu ta alkartu beitez gure baserritarrak



Zoragarriak dira gure baserri-auzunak, etxez, eleizaz, landa ta soloz inguratuta.

be, talde andietan, korapillo estua egiñik; auzoak lenengo amar-amabiko taldeetan, erriak gero euren artu emon estuan. Kate ori, nok eten ondoren?

Taiu ortan baturik, zaindu, bete-eragin

eta aurrera eroan al izango dabez euren ~~er~~ kubide ta interesak. Onek, egia, buru-ukapena eskatzen dau, bata bestea gazko uste ona, konfiantzea. Baiña gauza andi guztietarako bear da olako zerbait.

«Aiogera berenez ezta bidegabea ta **ba-dala** diñoenak, **XIII** Leon gure Aurretikoari irain andia egiten dautse —diño **XI Pi Aita Santuak**—; **baiña** alogera berenez makurkeri ta bidegabea izan ez arren be, oraingo gizabaten izakera ta bizikerea aintzat arturik, aloger-egiune edo kontratu **ori**, baltzu-egiunearen bidez, albestean **leundu** ta gozatuko ba'litz, **gure** aburuz obe litzateke».

Ori esanaz, **auxe** adierazo nai dausku Aita Santuak: langilleai, alogerez gaiñera, garatzaren irabazietan be euren tokamena emongo ba'litzakioe, ori aloger soilla baiño **egokiago** iizango iitzatekela. Eta tokamen **onen** bidez **iangilleak**, ugazabakin batera, garazkide izatera ba'letorz, oraindik askoz **obe**. **Gauzak** onelan atondu ezkeru —diño **Aií Santuak**—, «langille ta **arazodunak** garatzsren jabetzan, lanaren zuzentzean eta irabazietan be zelanbaíi eskua artzen dabe». ta esku-artze ori **ugazaba** ta langillen bakerako **bide** on-ona **dala** ezin **ukatu**».

# BASERRIARI EUTSI

## ALA KALERA JETXI?

Baserrian bizi naiz. Bai, baso-errian. Ez basetxean.

Ta gutxi edo asko, nekazarien arazoekin kazkaturik.

Basetxean jaioa naiz, nekazaritzan jarduna, baso-errian bizi natzaizu. Maite ditut baserritarrak beren doai, akats eta guzti.

Zapaldua, menperatua, atzeratua ta ez jakin izateak sortu oi duan bekaizkeria, beren akatsik nabarmenetako bat.

Baiña argiak dituzu. Sen aundikoak. Langilleak. Zintzoak.

Ta nekazari auek zer-esan aundia daukate gaurko gizarteari. Gaurko gizarteak ez du beroiekin batere kupidarik, Baztertu egiten ditu, gizarteko zaborra bezela. Ez ditu aintzat artzen. Ezer gutxi opa zaie.

Itz ederren losintxa besterik ez zaie eskeintzen.

\* \* \*

Ba-dakigu, zergak edo erri-dirua danok ordaindu bearrekoa dala. Erriari, erritar guztiak lagundu bear diote diruz ere. Asko daukanak, askorekin. Gutxi daukanak, gutxiarekin. Bakoitzak dezakean neurrian eta maillan,

Baiña, eziñean dabillen nekazari orri, ez al zaio eman bear geiago pillatzen urtearen buruan? Ez al zaio eskatzen, ondo ba'lebil bezela?

Neretzat geiegi da ori neurtzea, Galdetu besterik ez det egiten, beroiek geiegi kentzen zaielakoan bait-daude.

«Kaskagogor galantak dira nekazariak», erantzungo dit norbaitek. «Or daukazute, Aurrezki Kutxak, Zabalegi-ikastolaren eta irrat-saioen bidez, eskeintzen dizkieten erakus-aldiak». «Zer esker ematen diete?»

—Utsa... Esker txarra...

Guzitik. Ba-dira, oietan artzen dituzten argi ta erakutsien erara, beren basetxea ipinten alegindu diranak. Ta ez banaka batzuk. Bide-zabalak, lan-tresna egokiak, iku-

llu txukunak, bei esnedunak, ibil-tresna azkarrak eskuratu dituzte,

Ta?...

Len bezelatsu. Eziñean, arrastaka. Ardatzari loturik lorrean jarrita dagon bizitz-gurpillari bultzaka izerdi patsetan.

«Alkartu ditezela, ba».

Orain esan bear al diegu alkartzeko? Bakoitzak onelako dirutza bere etxea tajuz ipintzen eralgi duanean?

Nun egon dira, nekazarien gidari ta zuzendariak, lenago kontuak ez ateratzeko? Ez al zekiten, erakusten ari ziranak, bakarka jardunaz, etzeukatela irauterik gure nekazariak, naiz-eta aurrerapen eta erosotasun guztien jabe egin?

\* \* \*

ñork ikasi ta sakondu al du, gure erriak zenbat nekazarintzat eta zenbat langillentzat eman dezaken?

Ez al diegu itxu-itxuan esaten, «eutsi baserriari»? Gure erriak orrenbeste baserriar bear al ditu? Ez al luteke oraindik geiagok kalera jetxi bear?

Ta ori ala balitz, erri ta eliz-agintariak nolatan erakusten digute, beso zabalik artu bear ditugula etorkiñak? Ez ote daramagiku gure erria urka-mendira?

Nere ustez, oraindik baserri askok ustu bear dute. Ta, beren basetxea utzita, bizibide berriaren billa abiatzen diran oieri, kalerako bideak erreztu bear zaizkie.

Gure ola-lantokietan, erdaldunen aurretik jarri bear dira. Kale ta langillegiroan itsasten lagundu egin bear zaie.

Erri aundietako elizak, bai al du oien ardurarik? Ez al dira erbesteko ta arrotz beren errian? Euskal arnasik topatzen a dute? Euskal kaletarrak erdaldun biurtu diralako, euskerari orrenbeste urtean eutsi dioten nekazariak, ez al dira motz arkitzen kalean? Ez al diegu biderik eman, euskerari muzin egin dezaioten?

Egin bezaigute lenbaitlen gure jakintsuak, Euskalerriko egoera ta etorkizunaren ikasketak sakon bat. Eman dezaiegun, aguro, erantzun jator bat gure nekazariei.

Betor azterketa osoa: *Zer* tankeratak baserriak ustu. *Zer* eratakoai eutsi. Nun nekazaritzan jardun. Nun larra-beiak bota. Nun esne-beiak ipiñi. Nun aragitarako abereak azi. Nun landerea sartu. Nun barazkiak egin... Ori guzia ondo baiño obeto ikusi bear degu.

«Eutsi baserriari. Ipiñi baserria aurrera-bidean. Alkartu, nekazariok». Baiña besterik gabe, ikasketak sakonik ezean, auntzaren gaberdiko eztula izango da.

M. Atxaga

## OARRA

Erri-aurrerapenak, eta gurean industri-ugaritzeak batez ere, ainbat naste ekarri dizkigu guri. Len oso paketsu bizi ziran baserriarrak, beren etxe, soro ta landa-mendiak utzirik, kalera alde egiten digute. Au mingarria!

Baiña, beste aldetik, industri erri ta urietan askozaz eroso ta patxadatsuago bizi dira. Kanpotik ere asko datozkigu onera, lan billa noski. Nortzuk izan bear dute lenen eroso bizi *ortan*, geutarrak ala kanpotarrak? *Or* istillua!

Aurreko idazlan au, auzi oni buruz egiña, zentzunez osotua dala deritzait. ZERUKO ARGIA'k argitara eman zuen bere 253 zenbakian.





# ESKOLATZEA

Azitxo batek beragan daukaz indar berekoak, bere erara jarri ezkeru, erein ezkeru, sortu, erne, azi ta garatuteko. Gu gizasemeok be, era berean, sortzean bertan daukaguz geugan bizitzako jokera guztiei erantzuteko indar eta almenak. Baña geikorrak gara, geituaz goiaz, eta barruan daroaguzan indar eta almenok argitaratu, geitu eta sendotu egin bear doguz.

Esan oi da gizasemeok gareala izakirik kaskarrenak jaiokeran eta bizitzako lenengo urteetan. Geure gei egiteko, berbetan ikasteko, ezaguerara eltzeko, urteak bear. Eta gorputzezko bizitza au be sendotuteko, indartuteko, geituteko egunero, eta egunear sarri, janaritu egin bear.

Ekin ta jarrai, auxe da gure esakun zarra, ta gure bizimoduari egoki yagokon egin

bearra. 3ai gogoz, bai gorputez ekin eta jarrai. Gorputez eskuarteko lanean, eguneroko ogia lortuteko eta gorputzeko bizimodu ori sendotu eta zaintzeko. Guztiok Jaungoikuagandik dakargun zeregiña dogu au.

Baiña gogo-bizitzan be zeregin bardiña daukagula esan geinke. Gogoa landu, sendotu ta argitu egin bear dogu, jakintza eta eskolaren bidez. Au da gogua janaritzea. Gizaseme oso-osokuak izateko ez da naiko gorputzez indartsu, sendo ta osasuntsu bizitzea; baita gogoz be indartsu, argi ta jakintzu izan bear gara. Ortarako eskola ta jakintza.

Asko dira gaurko egunean gorputzez gose-egarrian bizi diranak. Euneko ogeien bat ei dira mundu zabalean aukeran bizi diranak. Beste euneko ogeien bat bizitzeko lañean jana dabenak. Eta euneko beste irurogeiak gosean bizi ei dira, eta euretatik asko, millekak, urte barruan gosez ilten direnak.

Au tamalgarria da benetan. Baiña beste gose eta egarri bat be bada munduan, ainbestean tamalgarri doguna: jakintza eta eskola eza. Auxe diño Aita Santuak: «Eskola bako bat, gogoz goserik dagoan bat da». Egia esan, jakintza-gosea, janari-gosea bai zen itsugarria da. Idazten eta irakurten jakitea, ogi bidean aukeraz jokatzeko eskolatua izatea, ori norbere buruaren jabe izatea da, besteak norbera aurkitzea da.

Euskaldun gurasoak diñoenez, al izan ezker, ezin leikez gaur seme-alabak eskola barik bide bazterrean itxi. Eta alegin guz-

tiak egiten dabezala ikusten dogu euren seme-alabak jakintza bidean ipinteko, orixe uste dabelako, ta ain zuzen be bai, euri lortu ta itxi leikioen ondorengo ederrena eta onuragarriena orixe dalako.

Baiña badira bai mundu zabalean eskolabakuak. Ona *emen* zeinbaketa batzuk:

Ipar-Ameriketan euneko berrogei eskola bakoak.

Afrika eta Asian, osoan artuta, euneko larogei eskola bakoak.

Ez dabe egingo gauz andirik, ez iraukerik naziño aurreratuak, naziño atzeratuei, atean ogi eske datozen eskekoei lez, jatekoa luzatuaz. Euri irakatsi bear yake ogia irabazten. Ortarako eurak eskolatu egin bear dira.

Unesco batzordea ba-dabil jakintza bi-deak mundu guztiari zabaltzeko alegiñak egiten. Ba-dira beste asko be, baktokak bere erara, jakintza zabaltzeko arloetan sartu diranak. Baita erri-agintariak eta erri arteko erakundeak, zeregin ortan diardue. Onexek dira errien aurrerakuntzan zuzenen dabiltzanak, orretara gizonak, eta gizonakaz bat naziñuak euren aurreratzea egiteko gai egiten dabezalako.

Onexek dira, Aita Santuak diñoanez, gizona eskolatzetik sortzen diran ondorengo ederrak: a) Norbera geitu, aberastu, norberen maillara eldu eta bere buruaren jabe egin; b) gizarte arazoetan sartu ta bat egin mailla bardiñean.

Ona *emen* gogoan eukiteko puntu oneik:

1) Giza-legea da munduratu garean guz-

tiok, bakoak bere lanagaz, munduan Jau-  
nak zabaldu dauskuzan janariakaz, gorp-  
izeko gosea asetutea.

2) Era berean giza-legea da, jakir.iza bi-  
dez, norbera bere buruaren jabe ta gai egi-  
eta.

3) Erri agintariak, guztiak eskolatzeko  
erea emoteko, aginpide gogorra daukie.

4) Jakintza nagusiak, ortarako gogoa  
eta almena daben guztientzat zabaldu bear

dira. Aberatsentzako bakarrik eskola nagusi  
orreik berezitzea, txiroai lapurretan egitea  
da.

5) Errialde bakoari, berak dauan jo-  
kerara ta gogora jakintza emon bear yako.  
Esaterako, euskaldunok, euskeraz eta **eusko**  
gogotik jakintza artu bear dogu. **Au** be  
giza-legea da.

A. Pedro Mari

# Gu eta kanpo- tarrak

Euskal lur-puska au, igarri barik, ondo  
azi ta ugaritu yaku azkeneko urteetan. Gure  
odoletikoakaz baiño geiago, zori txarrez,  
kanpotik etorri yakuzanakaz. Egin begiratu  
bat estadistikai ta arriturik geldituko zara,  
gera osteko ogetamar urteotan gure lurrak  
egiñiko aldakuntza ikusiaz. Emen damoda-  
zan datu ta izparrak, «Merksa» deritxon  
Azoka Ikaskuntzaren albistaritik artuak da-  
goz.

Zenbat garean jakin nai al dozu? Eun oi-  
ñarritzat artu ta Espaiña osoko arimai begi-  
ratu ezkerok, Bizkaia'n daukagu jentetzarik

andiena. Ondoren datoz Gipuzkoa, Napparroa ta Araba. Errazoiketetan eta datu-zenbaki zerrendak azaltzen asi barik be, errez dakusgu au.

Eta ze jente-modu bizi da gure lurraldean? Au be itaun jakingarria dogu, osoz bestelakoa izanik be. Araba'n, klase erdikoa bizi da, euneko 1,14 lez Espaiña'ri buruz; Gipuzkoa'n be, bardin, euneko 2,74 inguru. Napparroa'n erdikoa, euneko 1,98 bat; Bizkaia'n orobat, euneko 3,58 inguru.

Langilleak daukie, zer esanik ez, euren eunekorik andiena Bizkaia'n, au da, 2,43; eta Gipuzkoa dator ondoren. Espaiñarren artetik euneko 10 gure lurraldean bizi dira, ta 12,76 goi-maillakoak.

Gutzizko aberastasunen goi-orratza jakin nai izan ezkeru, iru puntu oneik, geienik, gogoan izan bear dira: 1) Aurrezki Kutxetako kituak; 2) erri ta uri bakotxeko urrutizkiñak, telefonuak, eta 3) ziñe ta olako ikuskariakaitik batzen dan zerga ta petxua.

Era bateko goi-orratzean, Bizkaia doa aurrelarí, Gipuzkoa'k eta Napparroa'k jarraitzen dautsoela. Ta goian aitaturiko iru atletatik lenengoa da geien emoten dauana; au da: Aurrezki Kutxetako kitu edo saldua dozu beste bien gaiñetik dabillena. Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Napparroa'n kotxe parkeak be goi-goi daukaguz.

Lau euskal probintziotan, geure aberastasunak eta geure gastu-ereduak daukaguz; bakotxak bereak. Baiña zetan gastetan da gure dirua? Familietako presupuestoetatik errez samar atera geinke ori. Araba'n batez be jantzietan gastatu oi da: otzak ortara beartu nunbait. Lau probintziotan dogu gero mai oparotsua; jatun ederrak gara ta nainun daukaguz jatetxe galantak, bakotxak bere sukaldean daukanetik aparte. Araba'n gitxiago kostetan da etxea dotore ta apain eukitea; Bizkaia'n ontan doa presupuestoaren erdia lez.

«Arrokeriz eta **nagusi** izatearren, auteskundeetan be, abereak ferian lez gizonak eta **onein** autarki edo botcak erosteko, ugazaba batzuk millaka **ogerleko** asko zabaldu dabez, erruki barik. Langilleai jai-egunetan lan eragin dautsen edo beintzat **lana laketu** dautsen ugazabok, millaka ogerlekoak **arrokeriz** jaurtiteko, ez kezkarik, ez lotsarik eztabe euki: aen alogerak pizka bat jasoteko, ostera, kezka ta atxakirik asko. Ori zuzena ba'da, munduan eztago gauza okerrik» iñoan Eguzkitza jaunak, 1935'garren urtean.

# Baserria ez daigun zatitu ez banandu

Euskaldunok, oraintsu arte, baserrian bizi izan gara, ia danok. Solo, mendi, abere ta abar, antxe eukan bere etxaguntza. Aitz-zuloak itxi ta baserritar egin zanetik, antxe irabazi eban jateko ta jazteko bear ebana.

Orain, naizta zar-sundaz ixil-mixillez bererikoa izan, ez dauzagu geure basoaldeko bizitegiari ainbeste txera egiten: uts-utsik be, errez itxi oi dogu bertan bera, zarkin antzean.

Alan eta guzti be, gure baserriak naiko aberatsak dira, mendiak zugatz baltzez, piñuz sartuta ba'daukiez batez be. Eta gaur, ango lana, gordiña dala-ta, begiko izan ez arren, ango ondasunak eder yakez andik doazanai. Ortik, istillu biziak sortzen dira sarri, baserritik doazanen eta an geratzen diranen artean.

BASERRIA (8) aldizkaritik artu dogun lan onek, argiro darakusgu auzi orren alderdi bat.

Bizkai'ko legez, baserria osorik doa be-launik belautan gurasogandik semeagana. Alan izan da oraiñarte: aita etxerako semea jaube-ordeko izentau, ta berarentzat da etxalde osoa bere lur, baso ta abereakaz. Baserrian jarraitu bear dauan semearentzat

laguntza emotea baiño ezta ori, bizimodu onik izango badau.

Baserriko etxaldeak, izan be, familia bakarrari bizimodu emoteko beste dauko, gitxi gorabera. Ointsurarteko aldietan, baserrian batera bizi oi zirean seme-alaba guztiak, baserriko zeregiñetan eskua ezarri ta lagunduaz, arik eta semeak soldautzara urten edo alabak josten ikasteari edo neska-me izateari eldu arte.

Askoz be egotaldi laburragoa egiten dabe orain baserriko seme-alabak, danak etxe baten, gurasoen etxean. Bai semeak, bai alabak oso gazterik asten dira zeozer ikasten, lan-eskoletan nai beste nonbaiten, bai dendetan, bai beste ola edo lantegien baten sartzeko. Eta astirik ez daukelako edo txikiak diralako, etxeko bearrari jaramonik gitxi egiten dautse.

Lengo gaztediak luzaroago ekiten eutsan baserriko bearretan, ta oingoa baiño langilleagoa, zoliagoa ta ezker obekoa agertzen zan ortxe. Etxetik alde eginda beste bizimodu bat artu aurretik, lengo gaztea gurasoen agindupean eta pentzudan bizi oi zan, eta pozik ekiten eutsan gurasoi laguntzen,

eurok bearlekuen bat edo bizimoduen bat zuzenduten eutsen arte.

Gaur ikastaldi luzeak egiten dira, lenengo liburuetan eta gero lantegietan: gastu andiko ikastaldiak gursaoentzako ta seineentzako, etxean gelditzekoerantzat izan ezik. Eta gurasorik geienak, ba-dakigu, pozik eta biotzik zabalenez artzen dabe neke ori.

Nondik dator, ba, oingo gazteak Bizkai'ko legearen arerio agertzea, etxeko seme bakotxari baserriaren zati bana emotea gurago dabela? Beste kanpoerrietako legeai obeio eritxita, zergaitik dagoz eurentzako be baserriaren lur-zati baten edo baso-zati baten edo bei batzuen eske? Ez ete da ori familia geiena eskeko bidean jarteko modua, gaurko ogi-koskor baten ordezk biarko gosea ekartea, batez be, etxean geldituko danarentzat, urira doanak aukera obeak eukiko ditu-ta.

Urian gelditzen danak, dendetan edo beste lantegietan sartu diranak, euki be, bearleku erosoagoak daukiez, legezko segurantzta obeak geroko; eta eztabe ondo egiten, doillor jokutzen dabe euren gurasoak estu artuaz, legez eta zentzunez kontrako bide barriak sartu daiezan. Gizaldi ta gizaldietan zentzunak ezarria da Bizkai'ko legea: baserri bakotxa famili bakar batek erabilli dau belaunez belaun, gurasokandik semeetara. Aitak seme bateri isten dautso etxalde osoa,

gaurko jabeak urrengoari. Eta olan jarraituaz, gaurkoak gaurkoari lez, urrengcak urrengoari aukera bardiña emongo dautso, baserriko ondasuntxoetatik seme-alabai nako eskola ta aurrerapide emoteko, euren gogoko bizimodua aurkitu ta etorkizun obea euki daien. Gaurko semeak eurentzat nai dabena, orixe bera.

Etxeko andrai aparteko deia gura deutsegu: ez zaiteze itsutu urian bizi dozuezan seme-alabak butanozko sukaldea, edo ontziak garbitzeko barria, edo lurrunezko lapikoa ekarri dautzuela-ta. Buruginkeriz, eurentzat koipe ateratearren egingo dautzuez olango erregalu ta eskupekoak. Erregaluak eskea ekarri leie ostean; eta eztira aintzat artzekoak, etxeko semeak eguneroko ekiñaz erakusten daben zintzotasunaten aldean; onen nekeen ondoan, zer-ikusi gitxikoak dira.

Baserritarrak bere seme-alabak eskolatu ta aurrerabidean jarteko artzen dauan neke ta ardurea, ori bai dala ederra ta ondo gogotan artzekpa. Eskola ori emotea, iñoz gitxitu ez galdu egiten dan kapitala da, gurasoak semeari itxi leion ondasunik seguru ta ederrena. Eta orrez gaiñera, bizimodua asteko diru-puskarik emon ezkeru, zer geiagoko eskatu leio iñok gurasoari? Ez al dau al dauana emon? Baserriak zer geiagoko egin lei bere semeen alde?

L. A.